



 HAMABOSTEKARIA 106. zenbakia 96ko abenduak 27

GOIERRITARRA



Urteari errepaso



BEASAIN

KIROLARIAK - BAZKIDEAK - ZERBITZUAK GORA ETA GORA

ANTZIZAR KIROLDEGIAN





First
Parfum éternel

Lirain
Perfumería y Artículos de Regalo

c/ S. Ignacio, 14 - Tl. (943) 88 93 90 - 20200 BEASAIN (Gipuzkoa)

*Urte Berri on opa
dizuegu guztiok!*

Parfums
Van Cleef & Arpels
Paris

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 88 96 12

Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Ara-
no, Mikel Albisu, Joseba Telle-
ria, Ane Martin, Loinaz Agirre
eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:

Joseba Telleria, Izaskun Salazar,
Koldo Urrestarazu, Urko Irastor-
za, Xabier Urteaga, Edurne Albi-
zu, Aitziber Murua, Rufino Irao-
la, Antonio Berasategi eta Aitor
Calvillo.

Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.200 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



'Gure eskuetan' talde bakezalea sortu da

Goierrri osoko gazteez osatu-
tako elkarte da 'Gure es-
kuetan'. Jose Mari Aldaia
enpresari bahituaren askata-
suna eskatzeko egin zituzten
konzentrazioetan sortu zen.
Abenduaren 14an aurkeztu
zen jendaurrean. "Gauzak
urrutiei joan ziren eta azke-
nik, jabetu ginen ezin ginela
ezer egin gabe egon, gai
hauek geureak ere bai baiti-
tugu; konturatu ginen herri
honen geroa geu garela",
diote.

"Gure iritzian sendotzen
saiatu beharko genuke, ho-
rrela etorriko baita toleran-
tzi eta bake giro hobea, beti
ere, gizarte honen oinarrian,
libre bizitzeko eskubidea
jartzen dugularik aurre-au-
rrean. Badira gure gizarte-
an ekintza batzuk, lortu nahi di-
ren helburuen ordainetan
ezin justifika daitezkeenak.
Garbi utzi nahi genuke ez
garela inongo gizatalde edo
ideiaren aurka ari. Guztiak
errespetatzen ditugu, baina
hori bai, Giza Eskubideak

errespetatzen ez dituzten
ekintza eta ideia guztien kon-
tra gaude", adierazi digute.

Bi helburu ditu taldeak:
gazteentzako gizarteratze eta
aisialdi ekintzak bultzatzea
eta Euskal Herriko bakea
lortzea. Datorren urtean hi-
tzaldiak, bertso jaialdia eta
antzerki emanaldi bat antola-
tuko dituzte.

Zenbait jenderen "gaizki
begiratu" izan dute sorrera-
ko oztoporik nagusienata-
koa. 26 kide dira, eta Goie-
rriko gazte guztiei dei egiten
die taldean parte hartzeko. 3
baldintza: jarri dituzte: 14-30
urte bitartekoa izatea, Goie-
rriko udalerriaren batean
errolatua egotea, eta "gure
herriaren Bakearen eta As-
katasunaren alde sutsu lan
egiteko gogoa izatea".

Beasaingo Udaletxean
biltzen dira ostiraleroko 20:00-
etan. Harremanetarako 158
posta-kutxa eta Interneteko,
'gure-eskuetan@redestb.es'
helbidea daukate.

BOTA BERTSOA



Ikerne Urrestarazu

Inuxente eguna

Doinua: zortziko haundia.

Egun honetan aprobetxatu
besteei adarra jotzen
eta egiten dizkizutenak
umore onakin hartzen
guztiok gara inuxenteak
ta ez da inor libratzen
gu inuxente jaiotzen gera
eta inuxente hiltzen.

Egun berezi xamarra dela
hori usten du jendeak
ez dira falta izaten inon
broma eta nahasteak
ez du ezer berezirik egun
xelebre hau izateak
urteko egun denetan denok
garelako inuxenteak.

Eusko Jaularitz-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Beasaingo Udalarri

Azaroaren 14an, osteguna, ospatu zen azken Udal Batzarrean, 88-89 poligono zahar eta arazotsuan, hau da, Porteria auzoan egin beharreko expropiazioen gaia aztertu zen.

Poligono honetan, lurren % 80a dagoeneko Udalaren eskuetan dago, hauen sale-rosketarako jabeekin akordio batetara iritsi ondoren. Urte haietan lurren gainontzeko % 20aren jabeak Udalaren eskuetan geratu ginen. Gaur, gu lokatzetan hondoratu gabe ikastolara joan ahal izateko, gure ama, bide bat eskatuaz, kamioien aurrean gurutzatu zenetik 20 urte pasa direnean, hainbat gorabehera paseak gara, etxean hiri antolaketatik kanpo jarri, 89. urteko kazkabarraren ondoren teilatua konpontzea galerezko ahaleginak, etxea kanpotik txukuntzeko eskaerari emandako ezezkoak, barruan ere obrak egitea galarazi... eta abar. Baina hori bai, kontribuzioa, estolderia, zaborrak, bizilagun jatorrak bezala ordaintzen ditugu, nahiz ezertarako esku-biderik ez izan.

Gaur Udalak derrigorrezko expropiazioa onartzen du, hau da, beraiek akta altxatzen eta etxea tasatzen etortzen direnetik gutxienez 8 egunetara, guk, etxea utzi beharko genuke eta Udala okupatzen pasako litzateke, negoziaketak ondoren hasiko liratekeelarik. Alkateari delako Udal Batzarrean gurekin hitzik egin gabe horrela etxetik bidaltzea ez zitzaigula ongi iruditzen esatean, berarekin hitzegin-go genduela erantzun zigun, eta honetako expropiazioan ere jabeekin negoziaketa

bat ematen zela. Noski negoziaketa bat ematen dela, baina gure etxetik kanpo egon ondoren! Paperetan dena legala, baina pentsa dezagun piska batean guztiok (alkatea eta korporazioa ere honetara konbidatuak daude), nork utziko luke bere etxea aurretik negoziaketarik eman gabe, akordio batera iritsi gabe?, alkateak, korporazioak, nork? Guk behintzat ez!

Zalantza, gezurrez, bete gabeko promesaz beteriko 20 urteen buruan, Udalaren borondate onean konfidantza izan behar al dugu? Udalak, kentzen diguna, berriro diot, soilik kentzen diguna emango digunaren konfidantza izan behar al dugu?

Zergatik expropiazio mota hau orain, gurekin inoiz harremanetan jarri ez zaretenean? Alkateak dio gurekin hitzegin duela, noiz izan zen hori galdetzean, orain dela urtebete izan zela erantzun zigun (96-11-14ko Udal Batzarrean). Noski hitzegin zuela, baina oraindik "Peri" delakoa onartu gabe zegoenean eta expropiazio modu honetaz ezer ere ez genekienean, gainera, gure ekimenaz izan zen, ez bera gurekin harremanetan jarri zelako. Zergatik guretzat traumatikoa izan daitekeen expropiazio mota hau, jakinaren gainean egonik (agian hori izan da gure errua) akordio batetara iritsi gintezkeela?

Expropiazio guztiak dira derrigorrezkoak, baina gertatu den guztiaren ondoren beste tratatu bat merezi dugula uste dugu, Beasainen eman diren expropiazio kasu gehienetan jabeek eman zaien tratutaren berdina. Gu

bait gara, herriko bizilagunak, zuen gestio txarrak jasaten ditugunak, baina jakina da, gaitz handientzat erremedio handiagoak.

Guk beti jo dugu beharrezkotzat, guztionatik ahaztua egon den poligono honen urbanizazioa, baina ez edozein modutara, eta gure gainetik pasatuaz, gu izan bait gara betidanik kalitetuenak. Orain hobeto ulertzen dugu aurreko alkatearen erantzuna galdetzerakoan, ea zergatik bota behar zuten gure etxea karretera beheago egiterik bazegoenean, erantzuna gu bidaltzea errazagoa zela izan zen. Etorkizunean izango dugu proiektu honen inguruan dauden interes ekonomiko-en berri.

Aurrera bada, elkar topo egingo dugu eta bakoitzak bereari eutsi beharko dio. Era honetako expropiaziorik ez!

**Roberto Begué Sarasola
eta sendia (Beasain)**

Beste "gora-behera" bat gure Udalean

"Ditxosozko" Batzardea dela eta ez dela. Kontu hau ekainetik dator... eta inor gogaitzeko gogorik ez dugunez, azal dezagun zuzenean nola bukatu den "gora-behera" hau.

Azken hilabeteotan behin eta berriro eskatu dugu, bai alkateari berari bai egin diren udal plenoetan, batzarde bat sortzeko gure senide preso eta errefuxiatuen arazoak jorra ditzan.

Bada, hara non jakin dugun urrirako Batzardea sortu zutela, baina gu bertan izan gabe. Azaroaren 14an egindako Plenora joan ginen, galde-eskeen atalean

jakina, eta eskatu genuen Batzardean parte hartu ahal izateko; Iuren eta HBren borondate ona alde batera utzita, gainontzeko alderdiek... hitzerditxo bat ere ez. Alkateak esan zigun hurrengo astean izango genduela erantzuna... eta akabo.

Hurrengo astean ez zen erantzunik izan, ezta ahoz ere... Azaroaren 28ko plenoa aprobetxatu genuen igotzeko... bada, gu han aurrean geundela, aipatutako galde-eskeen atala iritsi baino lehen, zinegotzi batzuk altxatzen hasi ziren; haien jarrera zein zen ikusita, pentsatzekoa zen zein izango zen erantzuna: Batzardeak erabakia zuen ezetz, ez zutela parte hartuko ez Senideek ez beste inolako talde bakezalek.

Hara, jaun-andreok, uste dugu oso etorkizun ona izango duela zuen Batzarde santu horrek... (Gure senideen zein arazo tratatuko dituzue zuek, gurekin "ezin" tratatu dituzuenak?).

Era berean, plenoa aprobetxatu genuen eskatzeko dei egin zezaten Bilbon azaroaren 30ean egitekoa zen manifestaziora joateko, aurreko astean EAJk eta EAK probintzietako manifestazioetara joateko egin zuten bezala. EAKo zinegotzi bati entzun behar izan genion hori egitea bi neurri diferente erabiltzea izango litzatekeela.

Zinegotzi jaun-andreok... barkatu, baina azken hilabeteotan agertu duzuen jarrera eta sentiberatasun apartaren ondorioz konfiantza galtzen dugu zeuon buruzagiek egiten dituzten aldarrikapenetan.

Beasaingo Senideak

TXANDAKA

Proiektu haundiak

Logika --itxuraz-- ezin garbiagoz azaldu dute Donostiako Etxe Haunditik etorkizunaren giltza: "Etxegarateko kamino hori hain garrantzizkoa bada, berehala egin behar; berehala egiteko, ordaindu egin behar; peajea; bestela hemendik urte batzuetara, auskalo, izan beharko du". Pentsatu bide zuten, horrela emanda, ez dute burua zertan nekatu, hau ala hau.

Izan ere proiektu haundiek lilura baitakartu berekin, bestela ez lirateke haundi izango. Paristik, eta Stockholmetik ere, Cadizaino joateko ez omen dago hain kamino tarte traketik inon. Eta Zegamakoak beharbada ez du Stockholmera behin ere joan beharrik izango; Beasainaino ia egunero, hori bai. Ataungoak...

Gure bi herri handienetako alkateek ez zuten denbora galdu. "Proiektu haundia; heldu oraintxe". Zinez, hori uste dute? Baliteke, ondo esan orduan. Etxe Haundikoek asko dakite (Haundiagoa den beste batekoek ere zerbait erakusten diete) eta, badaezpada, baietz esan? Hori ere izan liteke, baina. Gero, ordea, jendeak zer esango edo, atzera egin dute.

Nire galderak: nondik nora, orain, halako presa? Hitz egiten al dira gauza hauek alderdietan? Sesioa sortzen bada bakarrik? Proiektu haundiak, hitz potoloak, arrazoi exkaxak.

Antonio Berasategi



Gustoko al dituzu Eguberriak?



Leire Lopez
19 urte, ikaslea
beasaindarra

Ez zaizkit asko gustatzen. Hori bai, oporrak ditugu eta egun hauetan egiten den guztia parrandaren inguruan egiten da, eta hori gustoko dut.

Juan Agirre
68 urte, erretiratu
beasaindarra

Egun hauek oso politak izaten dira. Baina gaur egun esageratuegiak dira, kontsumismo gehiegi dago eta horrek ez dauka erremediorik.



Pedro Mari Zunzunegi
11 urte, ikaslea
gaintzarra

Oporrak dauzkagulako eta familiarekin ondo pasatzeko aukera dudalako gustatzen zaizkit Gabonak.

hemen

DISEINU ALTZARIAK

Tefnoa./Faxa: 88 46 41

Urdaneta Kalea, 56

ORDIZIA



OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA

NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri 10 ☎ 88 61 14 -ORDIZIA

ORKI

OPARIAK

Gabon zoriontsuak!

Nafarroa Etorbidea, 5

☎ 88 10 50

BEASAIN



Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28

☎ 16 02 48

ORDIZIA

ZINEA

GOIENIZ:

Urtarrilak 9, 'Chunking Express', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'Dias de fortuna', Ostirala 27: 22:15.

'El profesor chiflado', Larunbata 28: 19:30 - 22:15; igandea 29: 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 30: 19:30 - 22:15.

'El funeral', Asteazkena 1: 19:30 - 22:15; osteguna 2: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'En honor a la verdad', Ostirala 27: 22:15, larunbata 28: 19:30 - 22:15, igandea 29: 19:30 - 22:15; astelehena 30: 19:30.



'Chunking Express'

Won Kar-Wai (Hong Kong, 95)

Hong Kong hirizarra eta bi istorio: ileorde horiz jantzitako emakume misterio-tsua ibilera larriak jarraituko ditugu, 'Chunking House'-ko kale jendetsuetan zehar, kamera bortitzaren erritmo itogarrian. 223. polizia berriz, maitasun ozpinak jota, hurbiltzen zaion lehen emakumeari atxikitze prest dago; nor izango ote da?

Faye gaztetxo ile motzak 'Midnight espress' tabernan egiten du lan, 'California dream' abestia etengabe entzunez. Hara joaten da gauero 663 zenbakidun polizia, bere neskarentzat entsalada eroatera. Gero eta hurbilago daude, baina...

BERTSOAK

ORDIZIA:

Urtarrilak 1, Euskaldunon Egunkariaren aldeko bertso jaialdia: Egaña, Murrúa, Telleria, Sarasua, Sorozabal, Maialen Lujanbio, Agirre, Iraola, Mendizabal, Lizaso eta Mendiluze bertsolariak. Gai-jartzailea: Joxerra Gartzia. Majori Kiroldegian, 18:00etan.

MUSIKA

IDIAZABAL

Urtarrilak 4, SFO, Izurri Berria, Trikitixa Kontrairo, 23:30etan pilotalekuan. Jarrak antolatua.

ORDIZIA:

Abenduak 31, 'Kattalin' doinua joko dute Laguntasua Errondailak eta Beti Argi bandak, 19:30etan hasita.

Urtarrilak 1, Drindots musika taldea, Beti-Alai pilotalekuan, goizeko 1etik aurrera.

ZALDIBIA:

Abenduak 27, EH Sukarra, Mcd, Potraino, Su tagar, Parabellum, Beer Mosh, Pilotalekuan, 22:30etan. Sarrera 1.200 pezeta.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Urtarrilak 4, Itxaropena taldeak 'Txusma en la Navidad' lana eskainiko du La Salle ikastetxean, 18:30etan.

IDIAZABAL:

Abenduak 27, Txalo antzerki taldearen 'Xagu apia' antzezlan, pilotalekuan, 22:00etan.

ERAKUSKETAK

ATAUN:

Abenduaren 29ra arte, 'Ekilore, gure arbasoen ondare mitikoa' erakusketa, Udaletxean.

PUB
ASTI
Zaldizurreta kalea
☎ 88 45 06 **BEASAIN**

GALDOS
■ Egurrezko zoruak
■ Mokatak
■ Sintasolak
■ Pintura eta barnizatuak
LENZERIA - LURRINDEGIA
Igartzeta Oleta, 12 ☎ 88 26 89
BEASAIN

DEKORAZIOA

- ✓ Lanparak
- ✓ Lorge lehorrak
- ✓ Opariak

Urdaneta, 25 ORDIZIA

JOSTAILU DENDA

- ✓ Jostailuak
- ✓ Joku didaktikoak
- ✓ Pelutxeak

Urdaneta, 24 ORDIZIA

MUGICA 19

MUJKA
LIBURUDENDA
Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA

BEASAIN:

Urtarrilaren 31 arte, Aterpe Tabernaren V. pintura lehiaketan aukeratutako lanen erakusketa.

Urtarrilaren 6ra arte, Gabonetako zuhaitz, Olen-tzaro eta jaiotzen lehiaketa-kon lanen erakusketa, Usur-be Antzokian.

ORDIZIA:

Urtarrilaren 6ra arte, OHOk ikastetxeetako ikasleek egindako Jaiotzen erakusketa, Barrenan. Ordutegia: 18:00etatik 20:00ak arte.

Urtarrilaren 6ra arte, Goierriko Goiztiri AEK-k antolatutako Ordiziako OHOk 3 ikastetxeetako haurrek egindako gabon postalak ikusgai, Barrenako atarian.

HITZALDIAK

IDIAZABAL:

Urtarrilak 2, Arrate Leunda ipuin kontalariarekin ipuin kontaketa, Kultur Etxean, 17:00etan.

BEASAIN:

Urtarrilak 10, 'Komunikazioa eta ongi izatea'ri buruzko hitzaldia, Arruti gabinetaren eskutik, Asmuben 16:00etan.

ORDIZIA:

Abenduaren 27, 30 eta 31n, irakurketa suspertze-ko emanaldia Arrate Leunda ipuin-kontalariarekin, 11:00etan Barrenan.

IKASTAROAK

BEASAIN:

Urtarrilak 13tik aurrera, "Word 6.0: testu prozesatzailearen azalpen orokor-rrak" ikastaroa, Asmubek antolatuta. 30 orduko ikastaroa izango da, eta izena emateko epea urtarrilaren 9an irekiko da, Asmuben 16:00etatik 18:00etara.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Lana:

☐ Dekorazio proiektuak egiten ditut modu onean taberna, etxe, dendetan. Ordenagailuz eta modu klasi-koan. Deitu 88 42 16 telefono-ra, 14:00etatik 18:00etara. Nekane.

☐ Frantseseko klaseak hartuko nituzke. 88 24 67. 8.00etatik aurrera deitu.

Salerosketak:

☐ Tabernako mahaiak, aulkiak eta tabureteak salgai. 88 24 89. Teodoro.

☐ Bertako babarrunak salgai. 88 18 02. Olaberria.

☐ Piano elektrikoa salgai, altzari eta guzti, Klavinova (Yamaha) markakoa, ohiz-ko pianoaren tekladu berdi-nekoa (88 tekla). Oso egoe-ra onean. 195.000 pezeta. 88 25 89 (goizez).

☐ Ezkontzako emazte-gaiaren soinekoa salgai, bere kankanarekin (3 aro-du-na) eta eskularruekin. Zen-baki neurria 48. Kolore marfila, kola luzea, borda-tua eta perladuna. Prezio bi-kainea. 806552 (Amaia).



GOARDIAKO FARMAZIAK

Oharra: Urtarrilaren 1etik aurrera, astelehene-tik ostiralera, Ordiziako Plaza Nagusiko Arriola farmazia egongo da zaba-lik. Asteburuetan ohiko turnoak egingo dira.

27: Jauregi.
28- 29: Atorrasagasti.
30: Laurnaga.
31: Cuesta.



- Esku lanak
- Ikastaroak
- Opariak

© 67 39 07
Euskal Herria, 11
IBARRA

© 88 40 56
Andra Mari, 5
BEASAIN

ÑAÑARRI
taberna
Urte Berri on!
Kale Nagusia, 1 ☎ 88 06 59
BEASAIN



Poeta Lizardi, 2
TOLOSA
Tfnua. 65 29 01

18
HILABETE

Interesik gabeko finantzaketa



Txani Lasa
Beasaingo HBko
zinegotzia

Berdin zaie plaza bat, azoka plaza, parkea, geltokia edo kirkil kaiola eraikitzea. PNVk ez daki zer nahi duen edo berdin zaio Eskisabelgo orube edo solarra edozerekin betetzea. Planifikazio propiorik ez dute eta beraientzako ez dago behar eta lehentasunik. Bestela nola ulertu promotore pribatuak 5 urtean aurkeztutako 3 proiektu ezberdin onartzea?

1991ko Usabiagaren proiektua

Promotoreentzako: Hotela, etxebizitzak gazteentzako eta Lokal komertzialak.
Beasainentzako: Zubi berria, biala eta Gipuzkoako Plazaren urbanizazioa, Azoka Plaza berria, Bus Geltokia.
Onespena: HBk izan ezik, denek onartu zuten.

1996ko Usabiagaren Aurreproiektu berria

Promotoreentzako: 60 etxebizitza, lokal komertzialetan 1.600 m. eta sotoetan 2.400 m.
Beasainentzako: Zubi berria, biala eta Gipuzkoako Plazaren urbanizazioa, Bus Geltokia.
Onespena: HBk izan ezik, denak prest ziren onartzeko.

1996ko (Urbialde S.A.) Aierberen proiektua

Promotoreentzako: 50 etxebizitza handi, 2.500 m. lokal komertzial eta 3.950 m. garaieetan. **Beasainen-**


Eskisabel: proiektu onartua eta alternatiba

tzako: Zubi berria, biala, Gipuzkoako Plazaren urbanizazioa eta plantan plazarxo zati bat. **Onespena:** HBk izan ezik, denek onartu dute.

Zergatik kontra?

Herri Batasuna noski, proiektu hauen aurka egon da. Eskisabelen etxebizitzak eraikiko dituen proiektuaren eta Eskisabel-Gipuzkoa plazako lurzorua lapurtzen duen edozein proiektuaren aurka baitago.

Ildo horretatik, ezin da, gelditzen den udal lurzoru apurra dotazio eta azpiegiturarako ez den beste ezertarako erabili. Gure proposamena horixe da: herriaren eta herritarren intereserako diren dotazioentzako gunea izatea. Horretarako beharrezkoa da gaur egun jabetza pribatuarenak diren 3.000 m² horiek erostea. Maila honetako proiektua, jakina, faseka gauzatu behar da.



Azkena eskuartearen daukagun tratu iluna haxe izan da:

Udalarenak (% 80), Gipuzkoako plaza, Hiltegi zaharra eta Eskisabeleko B eta D finkak ziren. Guztira 14.452 m².

Pribatuak (% 20), Eskisabeleko C eta E finkak, guztira 3.213 m².

PNV-PSOE-EA-PPk truke hau onartu dute: Udalak Aierbe konstruktoreari B eta D finkak emango dizkio eta trukean E finka, eta ez osoa (1.873 m.) hartuko ditu. 3.508 m. eman eta 1.873 m. jaso. Zergatik galdu behar ditu Beasainek 1.635 m.?

Non ikusi da jabeak lurzorua %80 jabetza eduki eta %20aren jabetza duenak inizatiba eramatea?

Era berean, erregimen libreko etxebizitza handi eta garestiak eraikitzea planteatzen duen proiektuaren aurka gaude. 20 milioitik ez dira jaitsiko eta inguruko kaleetan lau etxebizitzetatik bat hutsik dago.

HBren proiektua faseka:

Lehenengo fasean, trafiko eta aparkaleku arazoa konpontzen saiatu behar litzateke, azoka berria eraiki eta solarraren urbanizazioa kontenplatu. Era honetan, bialak, espaloiak, paseoak, aparkalekuak (linean) eta zubi berriak (hiltegi parean) arazoaren zati bat konponduko lukete. Azoka berriarekin baserritarren eta saltzaileen arazoa konponduko litzateke. Azokaren azpian lurrazpiko parkingak, berriaz, aparkaleku arazoa. Gi-

puzkoa plaza zelai eran, aisialdirako aprobetxatuko litzateke.

Behin lehenengo fase hau amaituta, espazio libre, gune berde, aisialdi, kirol eta gazteen eskariei erantzuten hasiko litzateke, Pilotalekua eta Gaztelekua eraikiz. Horrekin batera, parkea eraikiko litzateke. Pilotalekua zergatik? Bideluzeko pilotaleku zaharra bota zutenetik herriko ingurune honetan ez dagoelako kirolerako espazio irekirik. Gaztelekua zergatik? Beasaingo gaztedia 80. hamarkadatik eskatzen ari delako. Eta Eskisabelen kokatuz gero, Zinea eta Urbieta-etxea gertu izanez, azpiegiturak lotzeko aukera ematen du.

Hau da gure plana, anbiotsua bai, baina beharrezkoa. 800 milioi baino askoz gehiago kostatuko ez litzatekeen proiektua da. Hiruzpalau urtean Udalaren inbertsiorako diruarekin finantzatu daitekeena. Beasaindar guztientzako onuragarria izango litzateke, eta ez orain arteko hitzarmenak planteatutakoarekin bezala.

Laburbilduz: **Alde pribatuentzat:** Bere 3.213 m. engatik merkatuan dagoen prezioa ordaindu. **Beasainentzako:** Zubi berria, biala eta bere ibilbide arbolatuak, Gipuzkoako Plaza urbanizatu eta belarra landatu, azoka plaza berria, pilotaleku bat, Gaztetxea, parke peatonala eta 110 autoentzako lurrazpiko parkinga. Proiektu hau 800 milioi baino gutxiagorekin egin daiteke. 4 urtetan 225 milioi erabiliz proiektua ordainduko litzateke.

ERREZETA



M. Karmen Katarain
Urkiola erretegia
Beasain

ALKATXOFA ENTSALADA EPE- LA ARANDOI ETA FOIEAREKIN

Osagaiak: 12 alkatxofa, 6 ahate arandoi (mollera) konfitatu, 6 baratxuri fresko, 4 foie pusketa, goilarakada txiki bat perrexil txikitu, 3 goilarakada modena ozpin, 8 goilarakada oliba-olio birjina eta gatza.

Alkatxofak zurutu. Ontzi batean ura, gatza, limoi erdi baten zukua eta goilarakada txiki bat irin bota. Alkatxofak gehitu. Presio-eltzean egosi 10 minutuz; uretatik atera eta alkatxofa bakoitza bitan zatitu.

Zartagi batean olio jarri eta baratxuri freskoak egin, arandoi txikitu eta alkatxofekin batera. Guztia plater bero batean jarri.

Foie zatiak zartagi batean pasatu eta alkatxofen gainean jarri. Jarrarian oliba-olio eta modena ozpinarekin binagreta bat egin eta entsaladari bota. Zerbitzatzekoan perrexil txikituz hautsezatu.

AHOLKUA



Mari Jose eta Arantxa Alustiza
Mari Paz Garmendia
Jos&Bel ileapaindegia

"Zer egin dezaket? Moztu? Nola? Kolorea aldatu?" Zenbait egunetan ispiluaren aurrean galdera hauek egiten dizkiogu geure buruari. Batzuentzat ilea mozte benetako drama izaten da, baina gaur egun moda oso zabala da. Ile motzenetik hasi eta luzera guztiak eraman daitezke, nahiz gastatuak, desfilatuak... eta esan liteke geometrikoak ere ikusten direla berrirori, nahiz oso markatuak ezin izan.

Kolore mundua azken urte hauetan ematen den pausoa, berriz, izu-

garria da. Lehenago kanak edo ile txuriak estaltzeko erabiltzen bazen ere, gaur egun esan liteke % 90ek kolorea ematen duela.

Oso garrantzitsua da lan tekniko hauek profesional baten eskuetan egitea. Momentu honetan kolore konbinaketa dago puri-purian, nahiz gama berdinekoak nahiz nahastuak, kontrasteak eginez. Aukera oso zabala da hasi rubio argietik, doratu, kobre, marroi eta abar beltzera iritsi arte.

Eta urteari amaiera ona emateko zerbait ezberdina edo sofistikatu ere egin liteke, bilduak, norberaren ilearekin edo fantasiatzeko eta ile postizoen bidez.

Zer egin ilearekin?

Etixerako aholkuak

- Zure ileari eta buruazalari ondoen doakion txanpu espezifikoko batekin garbitu, gehiegi igurtzi gabe eta masajeak emanez.
- Ura ez dadila beroegia izan.
- Beharra ikusiz gero, ile puntetan edo denean, krema edo maskarila batekin bainu bat eman (dutxako txapel batekin edo zilar paperarekin bil daiteke). Hau egitea behar-beharrezkoa da, moldeatu edo antzeko zerbait eginez gero, ileari on egiten baitio.
- Urtean behin edo bi aldiz, hau da, udazken edo udaberrian, tratamendu bereziren bat egitea oso komenigarria da beharra ikusiz gero, ilea hazi eta errejenerazio on bat izateko. Oso garrantzitsua da masajearen bidez egitea.
- Ilearn osasunerako ez da nahikoa orraztegieta egin dezaketen tratamendua, norberak egunero zaindu behar du ilea, hori bai, profesionalen laguntzaz.



JOS & BEL

ILEAPAINDEGIA

- Azken teknika eta nobedadeak
- Festa egunetarako orrazkera bereziak

Urdaneta, 15

☎ 88 82 52

ORDIZIA



Disco-Shop

Zure disko denda!

K. Nagusia, 42 ☎ 16 19 76

BEASAIN



☎ 88 00 44

LAZKAO-ETXE

- JATETXEA ASTEBURUETAN ZABALIK
- NEKAZALTURISMOA
 - ⇒ 4 logela, beren bainugelekin
 - ⇒ Gosari, bazkari eta afariak

Aiestaran erreka

ZALDIBIA



Migel Irizar: "Nik ere bahituta egon behar nuen"

Perun Tupac Amaru mugimendu iraultzaileak Japoniaren Peruko enbaxada asaltatu zuen momentuan, Migel Irizar ormaiztegiar gotzaina ere han egotekoa zen. "Ni larri-

larri ibili nintzen, bi gonbidatuta nengoen baina meza bat eman behar nuen, berandutu egin zitzaidan", adierazi zuen Migelek Euskadi Irratian. "Guk uste genuen Perun terrorismo gai hori gaindituta zegoela baina oso gogorra da hau. Manifestazioa egingo da bahituen askatasuna eskatzeko, terroristek uler dezaten bide okerra dela eta arrisku handia dagoela. Oitoitz dezagun denok, Jainkoak argia eman beharko baitie hemengo Gobernuari, negoziaketa eraman behar dituenari, eta armatu edo terroristei".

Joxemiel Azurmendi kalean

Aldizkaria bukatzen ari ginenean jaso genuen albistea: 18 urtez kartzelan egon ondoren, abenduaren 21ean, libre utzi zuten Joxemiel Azurmendi beasaindarra. Estatu espainiarreko hainbat kartzeletan egon izan da, eta azkeneko hilabeteetan Martutenen izan da. Hurrengo alean izango duzue informazio gehiago.

21ean bertan egin zitzaion "ongi-etorritxoa". Baina Beasaingo Amnistiaren Aldeko Batzordetik jakitera eman digutenez, "berak merezitako omenaldi handia" abenduaren 28an egingo zaio.



GOIERRITARRAK atsedentxoa

GOIERRITARRAK ere Gabonetako atsedentxoa hartuko du. Urtarrilaren 17an kaleratuko da hurrengo alea. Datorren urterarte eta Urte Berri On!

Arriola farmazia

Urtarrilaren 1etik aurrera, astelehenetik ostiralera, iluntzeko 8.30etatik goizeko 9.00ak arte Ordiziako Plaza Nagusian dagoen Arriola farmazia egongo da zabalik. Astean goardiako farmazi bakarra egon da urte guztirako. Asteburuetan, ohiko sistema jarraituko da.



Irizar

Ormaiztegiko Irizar kooperatibak Marokoko DAF Industries Maroc konpainiarekin enpresa berri bat sortu zuen abenduaren 10ean, Irizar Maghreb hain zuzen ere. Enpresaren %34ko ja-

betza izango du Ormaiztegiko Kooperatibak. DAF Industries enpresak autobusak eta kamioiak egiten ditu. Uneotan Marokoko autobus merkatuaren %36 du DAFek. Urtean 250 autobus egiten ditu. Guztira 85 langile ari dira lanean. Irizarrek Marokon 'Everest' ereduak luxuzko autobusak egiten ditu. Horretarako 600 milioi pezetako inbertsio egingo du eta lantegia berria martxan jarri eta 3 urtera 250 autobus egiten nahi ditu.

Txakurak

Olaberrian Beltza Taldeak duen behin-behineko gordelekuan, gaur egun aurkitzen diren 70 txakur eta 30 katuek "etorkizun iluna" dute. Usurbilen irekiko du Gipuzkoako Landare eta Animalien Babes Elkartek beste gordeleku bat. Olaberriakoari kontratua martxoan amaituko zaio. Beraz, data hau iritsi aurretik, txakur eta animalien adopzioa lortu nahi da. Interesatuak gordelekura hurbildu edo 580065 telefonora deitu. Adopzioak dohainekoa da.

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 88 60 70

BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN

A HOL K U L A R I T Z A

GOENAGA

ARANBURU

AHOLKULARITZA OROKORRA: laborala, soziala, fiskala, merkantila, kontablea.

GESTORIA: ibilgailuak, garraioak, berrikuntzak, eskriturak.

**J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN**

Gabon zoriontsuak denoi !

☎ 16 00 65

Faxa: 16 03 59



Aterpe pintura lehiaketa

Donostiako Angelika Villaba pintoreak irabazi du V. Aterpe pintura lehiaketa. Argazkian duzue Angelika, bere kuadroaren aldamenean eta Aterpe tabernako brontzeko logotipoarekin. Guztira 59 obra aurkeztu dira lehiaketara.

Goierrritar ugarik hartu dute parte edizio honetan.

Besteak beste, hauek: Julia Monroy, Franzisko Aierbe, Rafael Sanchez, Alberto Bueno, Toñi Rodríguez, Iker Dorronsoro, Kontxi Aranburu eta Antonio Muñoz beasaindarrak; Usua Gabarain olaberritarrak; Juan Marbarte lazkaotarra; eta Leonor Paredes ordiziarak.

Lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai izango dira abenduaren 28tik urtarrilaren 31ra bitartean Aterpean.

Segura eta Idiazabalgo gazteen topagunea

Gazteen arteko komunikazioa lortu nahian, borroka mota ezberdinetan ari diren Segura eta Idiazabalgo gazteek bi eguneko topagunea egingo dute, urtarrilaren 4 eta 5ean. Topagune hauetan elkarlana bultzatu eta lanildoak zehaztu nahi dira. Egitara haxe da:

Urtarrilak 4, Seguran:

10:00etan: Bi herrietako gaz-

teak elkartuko dira Santa Barbara mendian eta Segura-ra jaitsiko dira.

12:00etan: Presoen aldeko poteoa. Ondoren paella txapelketa, bazkaria eta mus txapelketa.

18:00etan: 'Presoak Euskal Herrira'ri buruzko eztabaida, Kultur Etxean.

Urtarrilak 5, Idiazabalen:

10:30etan: Eduardo eta Iparriari omenaldia.

11:30etan: Gazte problematikari buruzko eztabaida.

14:00etan: Bazkaria Guraso Elkartearen.

17:00etan: Antimilitarismoari buruzko eztabaida. Ondoren "selekzioen" arteko jokoa.

21:00etan: Afaria pilotalekuan.

23:30etan: Kontzertua frontoian: Trikitrixa Kontraio, Izurri Berria eta SFO.

Txiste liburua

AEK-k antolatutako IV. Txiste idatzien lehiaketan aurkeztutako txisteak jasotzen dituen liburua kaleratu berria da. AEK-k antolatu dituen liburu azoketan dohanik eman dira eta Goierri guztiko liburutegietara ere banatu dira. Liburua jasotzeko interesa duena pasa bedi AEK-ko Ordizia, Beasain edo Lazkaoko euskaltegietatik.

San Silbestre

Beasainen, abenduaren 31n jokatu da San Silbestre atletismo proba. Eguerdiko 12:00etan hasiko da. Paralimpikoek parte hartuko dute. Ordizian ere, San Silbestre lasterketa herrikoia, arratsaldeko 5etatik aurrera hasiko da. Aurtengoa 20. edizioa izango da.

Ordiziako igeriketa saria

Abenduaren 27an jokatu da 'XIV. Eguberrietako Al- dundiko Nazioarteko Sari Nagusia', Majori Kiroldegiko igerilekuan, arratsaldeko 5.30etatik aurrera. Euskal Telebistak zuzenean eskainiko du aurren ere. Bi igerilari handi omenduko dira: Martin Lopez Zubero eta Sergi Lopez.

Goieniz

96ko lehen zikloa amaitu eta bigarren goa urtarrilaren 9an hasiko da. Apirilaren 10erarte, Usurbe Antzokian, hama-bostean behin, ostegunero 21:00etan, izango dira pelikulak. Urtarrilaren 9an 'Chungking Express' eta 23an 'Belle de Jour'; otsailaren 6an 'El secreto de las fosas' eta 20an Zine beltzaren barruan, 'El abrazo de la muerte' eta 'Sed de mal'; martxoaren 6an 'Cosas que nunca te dije' eta 20an 'El globo blanco'; eta apirilaren 10ean 'El odio'. Agendan izango duzue informazio zehatza.

Beraz, ziklo osorako abo- nuak salgai daude berriro, 2.000 pezetan.


ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)



Gabon zoriontsuak
eta Urte Berri on!

BASAKANA

ITURRIOZ, 11
BEASAIN

ORDIZIA AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76



rainbow rainbow rainbow rainbow

Aterki eta poltsak, bidaietako artikuluak,
konponketak, gerrikoak, etxeko diseinuak...

San Inazio, 2 BEASAIN ☎ 16 09 65
Errementari, 5 TOLOSA ☎ 67 41 43

Gabonetako apaingarri, basoan urri

Neguko solstizioan gaude. Naturak ziklo berriari ekingo dio. Sinbolo batzuek garbi adierazten dutenez, beroa eta argiaren urteroko jaiotzarekin uztarturik dago aro hau. Baina gaur egun, gure kulturaren, Jesusen jaiotza da ospakizunik garrantzizkoena: Gabonak dira. Ondorioz, basalandare ugari xahutzen den garaia ere bai: bere ohiko *habitatetik* erauzi eta etxe eta kale-apaingarri erabiltzen dira. Nahiz eta espezie batzuk legeak babesturik dauden, gorostia esate baterako. Beste batzuek ez dute inolako legerizperik. Ekosistema apur ez dadin ez dago mintegietara jotzea beste erremediorik.

Jesusek jaioteguna neguko solstizioan edo urteko gaurik luzeenean kokatzen da. Ez dirudi kasualitate hutsa denik. Egun horretatik aurrera naturaren erritmoa aldatzen hasten da eta eguna gauari minutuak jaten. Eguzkiak, behearakako martxa etenik, gure begietan ordu gehiago pasatzen ditu. Argia eta beroa, arrautza-oskoletik libratutako txitoaren pare, indartu eta udaberriari bidea prestatzen hasten dira.

Enigma misteriotsu honen kultura guztietan du egundoko indarra eta mistizismo eta erlijioen bidez



Belenak ipintzeak, asko atzeratu zuten erroak paganismoan dituen arbola gure artean sartzea.
Arg.: Fotoetxe

aurkitu izan diote esplika-zioa. Pertsiar, egiptoar, greko, erromatar, azteka eta hinduek solstizio garai hau hartu zuten beren jainko nagusien jaiotza-datatzat. Kristautasunarena oso nabarmena da: Mesiasen jaiotza abenduaren 25ean ezarriarik, naturaren sinbolismo zaharra asimilatu eta bereganatu zuen. Jainkoaren etorreraren kontzeptua natura kosmikoan gertatzen diren zikloekin bat dator, paralelo doa. Elizak mende luzeetan uztartu eta indartu du Jesus eta Eguzkiaren arteko erlazio sinbolikoa. Izan ere, garai haietako herri askorentzat, Euskal Herriarentzat ere bai?, Eguzkia beste jainko bat gehiago baitzen.

Baina ez da hor amaitzen sinbolo paganoak bereganatzeko Kristautasunak izan duen grina. Gabonetako ar-

bola da jokabide horren adierazpiderik nabarmena. Zelta eta germaniarrentzat arbolak ziren, batez ere haritza, beren jainkorik printzipalenak. Kristautasunak, bere sinkretismo gaitasuna zenbaterainokoa zen erakutsiz, azkar bereganatu zuen sinbolo berria. Hori bai, aldaketa bat egin zuen: arbola sakratua, haritzaren orde, izeia izango zen aurrerantzean. Espezie honen triangelu-forma guztiz erabakigarria suertatu zen aldaketa onesteko. Hiru punta horiek kristau erlijioaren misteriorik handienaren sinbolo ziren: Hirutasun Santuarena. Goikoa Aitari dagokio; beheko biak, berriz, Semeari eta Espritu Santuari. Erlijio katolikoak 1945 aldera onartu zuen ofizialki. Une horretatik aurrera izeia eta Jaiotza elkarturik ikusiko ditugu.

30 kandela

Izeiak erakargarri eta kuttunago bihurtu eta beren betiko itxura aldatzeko, adar soil eta kimatuetatik zintzilik, harri pintatu eta kolore biziko oihal-puskak ipintzen hasi ziren. Europako egurginek hedatu zuten izeia etxeetan sartzeko ohitura. Zuhaitza etxe barruan ipintzeko usadioa gailendu zenean, adarretako zintzilikario eta apaingarriak aldatu egin ziren. Sagar gorriak eta 30 kandela zuri ipintzen zituzten zuhaitzetan, Jesusen ezkutuan emandako 30 urteak sinbolizatzen zituztelarik. Sinbolismoak borbiltzeko, 3 kandelatxo gorri ere ezartzen ziren, Jesukristok jendaurrean predikatzen emandako 3 urteen adierazgarri.

Egurgin eta nekazariengadik hasirik, Germania eta Eskandinabiako hiri batzuetara ere hedatu zen ohitura XVIII. mendean. 1870 aldera Ingalaterra osoan ageri da arbolak ipintzeko usadioa. Eta XIX. mendearen hondarrean guztiz hedaturik dago Europaren ipar eta erdialdean eta Iparramerikan. Bestalde, mende honen bigarren partean zabaldu zen penintsula Iberikora. Espaniako jende askok *maizteko arbola* jotzen du Gabonetakoaren aurrepauso. Jakinekoea da zenbait herritan arbola zurituak nola ipin-

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredolak
Mantak - Mairidreak - Mahai oihalak
Toallak - Gortinak eta osagalak

M. Zeberio
88 00 84

J. M. Barandiaran Plaza
ORDIZIA

Urte Berri on!

ARANA, 1
88 93 88
BEASAIN

LURRAZPIKO
JAIA !!



tzen dituzten maiatzean, herriko plazan, naturaren emankortasunaren sinbolo. Euskal Herrian arbola hau San Joanetan paratzen da.

Nolanahi ere, beste usadio batzuek, batez ere *Bele-nak* ipintzekoak, asko atzera zuten erroak paganismoan dituen arbola gure artean sartzea. Beste gauza bat erantsi behar zaio orain arte esandakoari: Olentzerok lehen ez zuen gaur egun daukan protagonismorik. Jesusen jaiotzaren bueltan ospatzen zen dena. Olentzero mezulari soil bat baino ez zen. Orain badirudi Jesusen ordeztu dela Gabonetako protagonista nagusia. Erregeei ere tokia erruz jan die.

Mihuraren magia

Mihura betikotasun eta naturaren lorakuntzaren sinboloa da, baita mendeetan zehar landareri gurtuena ere. Europako barbaroen artean oso zabaldurik zegoen ohitura hau: neguko solstizio gauean druidak landare magiko horren bila ateratzen ziren. Urte osoan berde eta heze egoteaz gain, haritz sakratuan hazten zen. Urrezko igitai diztirsua eskuan zutela joaten ziren; urrezkoa izan behar zuen, bestela mihurak bere ahalmenak galdu egiten zituen. Igitai horrekin adaskak moztu ahal lau birjinek biltzen zituzten liho zurizko maindiretan. Mihuraren ahalmen magikoak begikotik babesten zuen. Eta lan-

dare hau etxe-atarian ere ipini ohi zen, basoko izpirtuek negu beltz eta hotzean babesa izan zezaten.

Kristautasunak ez zion muzinik egin landare sakratu honi, besteak beste sendagaietarako ere ona baitzen. Horrela, mistizismo kutsuko ipuina osatu zuen: ipuin horren arabera, Jesukristoren gurutzea mihura-arbola handi baten egurrez eginga zen. Beste mihura guztiak, lotsaturik, txikitu egin ziren, gaur duten tamaina horretaraino. Gainera, beren nortasuna zeharo galdu zuten, beste landare batzuen bizkarretik bizitzera beharturik, parasito bilakatzeraino. Mihura orria etxean gordetzea Jesukristoren heriotzari omen egitea da. Hori guztia horrela izanik ere, kultura paganoan zeuzkan esanahiak ez ditu galdu eta suerte onarekin erlazonaturik segitzen du.

Erritu eta usadio hauen ugaldenak arrisku bizian ipini ditu espezie hauek eta beste batzuk, esate baterako gorostia. Legeria berriak erregulatzen du zenbait landareren erabilpena, baina betetzen den da kontua. Mintegitik hartu edo erosi dituzula ziurtatu behar duzu, adibidez, izei eta gorostiaren kasuan. Euskal Autonomi Erkidegoan 1983az geroztik gorostia babesturiko espeziea da eta debekaturik dago atera eta moztea. Mintegietako gorostia ko-



Gipuzkoako izeien % 75a Goierri aldean produzitu zen: Zerain, Mutiloa, Idiazabal eta, batik bat, Zegaman.

mertzializa daiteke, ordea. Oraindik ere badaude legebabesik gabeko landareak: goroldioa, gurbizta...

Produkzioan Goierri nagusi

Gabon-arbolaren eskeari nolabait erantzun behar eta, inportaziora jotzeaz gain, Katalunia eta Euskal Herriak Gabonetako arbola natural eta bereziak produkzitzeari ekin diote. Bereziki horretarako prestaturiko terenoetan landatzen eta lantzen dira, teknika berriekin, eta baso normaletan kalterik egin gabe betetzen dira jendearen desio eta beharrak.

Hiru dira espezierik ohikoena: a) Izei gorria edo *Picea abies*; mila pezeta inguruan saltzen da. b) Izei hibrido edo *Abies masionais*; bi izei klaseren gurutzaketatik dator: Pirineoko *Pectinata* eta pinsapo malagatarra; sustrai-lur gutxikoa da; mazeta eta guzti saltzen

da, 3.000 pezeta inguruan. c) Kaukasoko izeia edo *Abies nordmanniana*; sustraietan lur-muilo handia du. Eguberriak etxean pasagatik, berriro ere kanpora eramanez eta landa daiteke; zain sendoak izanez gero, normalean ez da ihartzen. 10.000 pezeta inguru balio ditu.

Iaz, 1995ean, Espainian gisa honetako milioi bat zuhaitz konifero saldu ziren; hauetatik, 700.000 Katalunian produzituak, 250.000 Euskal Autonomi Erkidegoan eta 50.000 Nafarroan.

Gipuzkoan, 1995ean, 150.000ren bat izei landatu ziren. Hauetatik %75a Goierri aldean produzitu zen: Zerain, Mutiloa, Idiazabal eta, batik bat, Zegaman.

Oharra: Abenduaren 7an Julen Rekondok DVn argitaratua da artikulu honen eoinarri.

Rufino Iraola



BIÑASPRE

USAINDEGIA
OPARIAK
ESTETIKA ZENTRUA

Opariak
Gabonak 96

K. Nagusia, 8

☎ 88 13 37

ORDIZIA

Iues rothers
BEASAIN

Urtarrila

1: Idiazabalgo *Albitxu* jateketa itxi zuten.



8: *Jabier Elzo* beasaindarak gazteei buruzko txostena kaleratu zuen. Erreakzio eta zeresan handia sortu zuen. Biolentzia justifikatu edota erabiltzen dutenak aztertu zituen.

12: Beasain, Ordizia eta Lazkaoko udalek antolatuta, 'Antzerkiaren garaia' kanpaina martxan jarri zen. Apirilaren 26ra artekoa izan zen.

13: *Luis Garmendia* segurar futbolaria Las Palmas taldera joan zen. 96-97 denboraldian, berriz, Ceutako futbol taldean ari da jokatzeko.



Juan Mari Zeberio ataundarra Hizkuntza Politikarako sailburuordea bere postutik kendu zuten, us-tez, Mari Karmen Garmendia Kultura sailburuarekin izan zituen desadostasunengatik.



15: *Jokin Mujika* Estatu Espainiarreko ziklo-kros txapelduna, Telleriarten egindako lasterketan.




22: *Lazkaoko Beneditarren liburutegiko* ardura-duna den Juan Jose Agirri Sabino Arana Fundazioaren saria eman zioten. Euskal gaietan espezializatutako liburutegia da eta altxor handia gordetzen du bertan aita Juan Joxek.

24: *Ordiziako azoka* Beti Alai pilotalekuan egiten hasi zen, Enparantza Nagusiko konponketa lanak zirela eta.

24: *Sasieta Mankomunitateari* 'Biotxu' saria eman zion Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, udaletxe


eta Mankomunitate espezialitatean. EAEn ingurugiroaren babes eta zaintza lanetan gehien nabarmendu den entitateari eman ohi zaion saria izaten da.



27: *Mikel Aizpuru* gabi-ritarra Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) zuzendari izendatu zuten.

Urtarrila: *Domingo Goiburua* idiazabaldar albarda egilea, *Prudentzio Jauregi* lazkaotar pelota egilea eta *Ordiziako Telleritea* sendiko *Maria Lurdes* eta *Jose Antonio* erroskila egileak saritu zituen Gipuzkoako Merkatal Ganbarak.

IBAI-ONDO



ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN

CUESTA

oihaldenda

Kortinak, alfonbrak, etxeko arropak
Oihalak

Plaza Nagusia, 4 ORDIZIA



ZEGAMA

OKINDEGIA

* Ogi integralak

* Baserriko ogiak

Eskuz egindako-ogi naturala

Olaberria Kalea, 6

☎ 80 10 66 - 67 22 28 (etxea)

ZEGAMA



PUB
XUBER

*Urtea ondo bukatu eta hobeto
hasteko giro apropos!*


Zaldizurreta z/g BEASAIN

Otsaila



1: 'Loinatz 97' Kultur Elkartea aurkeztu zen Beasainen. Loinazko San Martinen heriotzaren 4. mendurrena betetzen den honetan, Beasaingo herria ezagutaraztea eta beasaindarrek proiektu honetan parte hartzea ditu helburu nagusienak. 97ko San Silbestrearekin amaituko dira ekintzak.

Setik 11ra: 'Iparra-Hegoa' aste kulturala egin zen Seguran, Iparraldeko egoera zertxobait gehiago ezagutzeko asmoz.



6: Segurako herri kaskoa monumentu historiko izendatu zuen Madrilgo Bellas Artesek. Erdi Aro kutsuko eraikuntzak direla bide etorri zen izendapena.

7: Itsasondoko 6 lagun aurkako epaiketa egin zen, ustez ertzain bati bertso iraingarriak bota zizkielakoan. Kargurik gabe libre gelditu ziren.

7-8: Haizete eta eurite gogorrak. Argirik gabe gelditu ziren hainbat eta hainbat herri. Kalte handiak sortu zituen.

10: 'Beasain Jaietan' urtekariaren indizea aurkeztu zen. Josetxo Zufiaurrek egin zuen lana da.

15: Ordiziako Laguntasuna Errondailak 36 urte bete zituen.

18: Joxe Iturrioz Urretabizkaia Legorretako alkatea hil egin zen, 69 urterekin.

19: Goierriko 9 alkate (Lazkao, Idiazabal, Ordizia, Segura, Zegama, Ataun, Zerain, Gabiria eta Beasaingoak) Aldintrans lantokiaren aurrean konzentratu ziren, ETak bahitua zuen Joxe Mari Aldaia enpresariaren askatasuna eskatzeko.

20-21-22: Astebeteko elurtea izan genuen. Ordiziako asteazkeneko azokan esaterako, 8 saltzaile bakarrik azaldu ziren.

HERRIKOA TABERNA

Pintxo mundialak

Giro abertzalea

Elkano Kalea

ORDIZIA

ALAIA

Taberna
Kafetegia

Urte Berri on!

Urdaneta, 2 ORDIZIA

LIRAIN

PUB

Urte Berri on!

Etxezarreta, 5


ORDIZIA



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 88 40 57 ☎ 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

Autowag, s.a.



Gasolina eta Diesela

☎ 88 82 54 - 88 82 62 - 888266
N-1 errepidea, 419 Km BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

Martxoan

1: *Zaldibia, Altzaga eta Itsasondoko udalak* Udal-erri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartu ziren. Euskaraz funtzionatzea du helburu honek mankomunitate honek.

3: *Hauteskunde Orokorrak* ospatu ziren egun horretan. Goierriko emaitzei dagokienez, hona hemen datuak: HBk 5.962 boto; EAJk 5.960; EAK 4.381; PSE-EEk 4.123; PPK 1.026; IUK 1.295; besteek 157. Abstentzioa % 8,23koa izan zen eta 33.169 goierritarrek izan zuten botoa emateko aukera.

8-9: *Gesto por la Pazek* itxialdia egin zuen Ordiziako Udaletxean. ETAK bahituak zituen Joxe Mari Aldaia enpresariaren eta Jose Antonio Ortega Lara kartzetako funtzionarioaren aldeko askatasuna eskatu zuten.



13: *Ordiziako azoka*, berri ere Enparantza Nagusian egiten hasi zen, behin obrak bukatuta.

14: Felipe Printzipia saria eman zioten Ormaiztegi-ko *Irizar kooperatibari*, Enpresa Bikaintentzakoari dagokiona. 1995ean sari bera jaso zuen, baina Diseinu industrialari dagokiona.

16: *Hezi Kolektiboak-Arañak* zentru berria inauguratu zuen. Santa Maria kaleko 4. zenbakian, 2. pisuan dago. Lana bilatzen, orientatzen laguntzen duen kolektiboa da bera.

17: *Ertzain baten kotxea* erre zuten Ordizian.

23-24: 'I. Gala Komentziala' egin zuen Ordiziako 'Ordizian' merkatarien elkarteak. Bi egunotan Ordiziako dendetann produktuak azaltzen zituzten hainbat postu izan ziren. Horretaz gain, hainbat eta hainbat kultur ekintza izan zen. Antolatzaileak gustora gelditu ziren jendearen harrera ikusita. Aurrera ere, gala egiteko asmoa du 'Ordizian'-ek.



24: *Txindoki* azpiko pinudiak sua hartu zuen. Sutea hasi ondoren egin zuen euriak, sua itzaltzen lagundu zuen.

25: Ezkio-Itsasoko *Zodiak dantzalekuan* droga-sarea desegin zuen Ertzaintzak. Dantzalekua ixteko agindua eman zuen ondoren martxoaren 27an.

27: *Legorreta eta Zaldibiako Herri Eskolek* protesta egin zuten, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza dela eta, haurrak herri-tik 12 urterekin atera behar baitira. Mobilizazioek irailera arte jarraitu zuten.



29: *Goierriko artisauen lanak* bildu, eta erakusgai eta salgai jarri ziren Ze-raingo Mandioan. Inaugurazio ekitalidan Rosa Diez Jaurilaritzako Turismoa sailburua eta Guillermo Echenique Diputazioko Turismo diputatua izan ziren. Hurrengo egunean.



29: *Dinisio Amundarain* Euskaltzaindiako urgazle berria izendatu zuten, beste 28 kiderekin batera.



5: *Drindots* musika taldeak 'Made in plazan' disko berria kaleratu zuen. 1991n kaleratu zuen lehenengo diskoa.

EROSKI
KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA



HERRI BATASUNA

Ordiziako Herri Batasunak gabonak eta urte berri zoriontsua opa dizue herritar guztiei, preso guztiak etxera ekarriaz.

ORDIZIA



☎ 88 55 00 ORDIZIA

Apirila

1: Javier Irastorzaren bila aritu zen Guardia Zibila Ordizia eta Beasainen, Donostia komandoarekin zerikusia duelakoan. Hurrengo egunean, Loinaz Olano Irastorzaren neskalaguna atxilotu zuten Ordizian, hurrengo egunean libre utziz.

4-5-6: Jarrai eta Gazteriak gazte taldeek antolatuta, 'Gazte Topagunea 96' izan zen Zaldibian. Antolatzaileen esanetan, 20.000 lagun izan ziren bertan.



10: Idiazabal Gaztaren kanpaina berria martxan jarri zen. Mixel Lekuona Iparraldeko Makeako bikarioa omendu zuten. Lehen gazta ebakitzeko ardurar, berriz, Pedro Subijana sukaldariak izan zuen.

13: Ordiziako Otegi Etxezarreta familiak auto istripua izan zuen. Ondorioz, ama eta alaba (Aranzazu Etxezarreta lazkaotarra eta Amaia Otegi) hil egin ziren. Peio Otegi eta Asier eta Garazi seme-alabek zauriak izan zituzten. Aste Santuko oporretan, Xabier Jimenez beasaindarra ere auto istripuan hil zen.



16: Joseba Jaka zegamarra hil egin zen, Cadizen, itsasoan izandako istripuan. Beunden egin zitzaion omenaldia eta bere errautsak hango haizeak zabaldu zituen. Elkar argitaletxea, Zabaltzen banaketa sarea eta Bilintx liburudendaren sortzailea izan zen.

16: Argider Mujika lazkaotar preso libre gelditu zen 7 hilabetez Carabanchelgo kartzelan egon ondoren.



Gabiriako Goruntz dantza taldearen 25. urteurrena ospatu zen, 21ean.

19-20-21: Ordiziako Gaztetxeak 10. urtemuga bete zuela eta hainbat ekintza antolatu zituzten.

20: Luis Migel Garijo beasaindarrak Gipuzkoako Duetlo txapelketa irabazi zuen.

26: GOIERRITARRA aldizkaria itxura-berriturik kaleratu zen. Azala eta kontrazalak koloretan, eta barruko orrietan kolore gorrixka sartua.

26: Alzaga herriaren Gogoeta Estrategikoa aurkeztu zen.

26-27: Juan Telleria Zegamako musika konpositoreari omenaldia eskaini zion Zegama herriak. 'Cara el sol' abestiagatik ezauna bada ere Telleria,

omenaldiko antolatzaileen esanetan, konpositore ona eta lan izugarria egin da.

27: Gabiriako Osinalde bertso sariketak zilarrezko ezteiak ospatu zituen. Lehiaketa egin beharrean, orain artean txapeldun izandako bertsolariak elkartu eta saio berezia egin zuten.

27: Josetxo Sastre intsumitua atxilotu egin zuen Ertzaintzak. Beasaingo Gurutze Gorriko egoitza (gaur egun botata dago) kakiz margotzen ari zen unean atxilotu zuten.

27: Beasaingo Loinatz abesbatza bere hamargarren urteurrena ospatzen hasi zen. Maiatzaren 17ra arte iraun zuen urteurrenak. Besteak beste, konpaktoa kaleratu zuten.

GESTORIA Biok

ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierrri, 12

ORDIZIA

AMONANE



Nagusia, 30

ORDIZIA

MIAMI
kafetegia

Etxezarreta kalea
ORDIZIA

Maiatza



1: Opel Irurok Marotias taldea Gipuzkoako txapel-dun gelditu zen, erlojuz aurkakoan, infantilen mailan.

3: Beasaingo Txindoki Institutukoak txirrinduz joan ziren eskolara. Ingu-rugiroaren astea ospatu zu-ten.

5: Emilio Sanchez lazka-otarra Estatuko txirrindu-lari txapelketa irabazi zuen, erlojuz aurkakoa, el-barrien mailan.

7: Egun horretan hasi zi-ren Aralarren otsoaren erasoak.

8: Javier Palacin bea-saindar txirrindulari Eus-kadi taldetik bota zuten, bere portaera kaxkarra ze-la eta.

9: ONCEko kupoiaren saria Ordizia eta Beasai-nen banatu zen. 130 milioi inguru guztira.

11: Lazkaoko San Pru-dentzio Ikastetxe publiko-ko neska-mutilak, Gipuz-koako Eskolarteko Herri Kirol txapelketan, koskol biltzen, txapeldun gelditu ziren.

14: Urko Galarraga zal-dibitar preso libre gelditu

zen, abuztutik kartzelan egon ondoren.

15: Marcelino Cama-chori omenaldia egin zi-tzaion Ordizian, alderdi komunistak antolaturik.

16: Ertzain baten autoa erre zuten Seguran.

19: Udal Intsumituen Mankomunitatean (EU-DIMA) sartu ziren Zaldi-bia eta Itsasondo. Euskal Herri ez militarizatura iris-tea dute helburua. Intsumi-sioa ez dela delitu aldarri-katu eta espainiar armada-rekin ez kolaboratzeko konpromezua hartu zuten.

24: Haritz Zeberio eta Ekaitz Goikoetxea bea-saindarrak Eskolarteko bertsolari txapelketako fi-nalean izan ziren.

25: Euskal Herriko kantu txapelketako finale-an goierritar hauek hartu zuten parte: Idiazabalgo Alaitz Katarain eta Ainitze Otamendik; Beasaingo

Xabier Matarranz eta Lau-ra Latiendak; eta Ordizia-ko Laguntasuna Erronda-llak, eta Iñaki Aranburu eta Xabier Barrerosek.

25: Beasaingo Sagasti-gutia parkea inauguratu zen.

28: Itun Berria Grekoa, Latina, Euskara aurkeztu zuten Donostian. Dionisio Amundarain buru zela egindako lana da. Horre-kin batera 'Belarritik Bihotzera' kasete eta kon-paktoak ere kaleratu ziren, Itun Zaharreko 31 pasarte eta Itun berriko 36 pasar-tek osatua.

29: Ormaiztegi liberal eta karliesten borrokaleku bihurtu zen. Altxorraren bila jokua egin zuten ber-tan, Zumalakarregi muse-oko tailerreko gazteek.

31: Beasaingo Udal An-tzerki Tailerrak 'Uderdi gau bateko ametsa' obra estreinatu zuen Usurbe Antzokian.

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnok.: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altxarigintza industrial
- Bulego altzariak

☎ 88 77 90
Faxa: 88 82 67

Mallotz, 25. pab.
ORDIZIA

URBITARTE

sagardotegia



- Egunero irekita, nahiz eta sagardotegi denboraldia bukatu
- Sagardotegiko menuaz aparte arraina ere egongo da
- Berezitasuna txuleta eta sahieskietan

Erreserba telefonoa: 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN

LOPETEGI

AUTO ESKOLA

GIDABAIMEN MOTA GUZTIAK

Igartetxe, 2
Oria Kalea, 14

☎ 88 21 74
☎ 65 11 17

BEASAIN
TOLOSA

Ekaina

1: *Beasain eta Azpeitiako Ikastolek*, pribatuaren aldekoek, manifestazioa egin zuten Beasainen, Alkartasuna Lizeoko zenbait irakasle eta gurasok jarritako inpugnazioa kentzea eskatzeko.

2: *Dantzari Txiki* egunaren 12. edizioa ospatu zen Ordizian. Edizio honetan auzoetara zabaldu zuten dantza eta bazkaria, berriz, pilotalekuan egin zen.



5: *Juan Mari Jauregi* legorretarra Gipuzkoako Gobernadore Zibil kargutik kendu zuten.

6: *Itoiz urtegiaren* kontrako konzentrazioa egin zen Usabiagak Zaldibia bidean duen lantokiaren aurrean. Usabiagak urtegi honekin duen hartuemana salatu nahi izan zuten bertan bildutakoek.



VII. Gerriko Ikerlan Sariketaren saribanaketa egin zen 14an. Irabazleak hauexek: 1goa Jose Felix Amundaraini buruz Antton Idiakez, Pello J. Aranburu, Marian Bidegain eta Iñaki Rezolak egindako lana; bigarrena Jose Migel Azurmendi beasaindar presoaren 'Zegamako euskara' lana.

7: *Josetxo Zeberio* beasaindar errefuxiatu atxilotu zuten Costa Ricako Liberia herrian, dokumentu faltsuak eramatea akusaturik. Epaiketa izan zuen eta kargurik gabe libre gelditu zen.

8: *Mugaz gaindiko azoka* berezia egin zen Ordizian, larunbatez. Ezpeleta eta Altsasuko herriekin elkarlanean antolatutakoa zen.

9: *Eskolarteko dantza txapelketa* jokatu zen Zaldibian. 6 urtetik 18ra bitartekoek hartu zuten parte. Txapelketa honek 25. ur-

teurrena bete du aurrean, eta lehenengo edizioa Zaldibian egin zenez, urtemuga honetan bertan egitea erabaki zen.

15: Euskal Herriko bola txapelketa jokatu zen Zerrainen. *Antonio Alustiza* zeraindarrak irabazi zuen. Bigarrena Xepiño Agirre segurarra gelditu zen.

23: *Segurako Dantza txapelketa*ren 20. edizioa jokatu zen. Olatz Nograro eta Ibon Elorza idiazabal-darrek, Uxune Apalategi eta J.I. Alonso, eta Estitxu Etxaniz eta Igor Narbarte beasaindarrek; eta Ane eta Joseba Juarez ordiziarrek

hartu zuten parte. Amaia eta Aitor Parrondo hernaniar anai-arrebek irabazi zuten. Edizio honetan lehenengo aldiz, jantzi doto-reenaren saria eman zen. Eneritz Epelde eta Kimetz Larrañagarentzat izan zen sari hau.

28: *Goierriko Gurutze Gorriaren egoitza* inauguratu zen Beasainen. Egoitza berria Urbialde kaleko 6. zenbakian dago. Zuzendaritza, idazkaritza, giza baliabideak, ekintza eta zerbitzuak, giza arazoak eta gazteria sailak kokatzen dira bertan.

29: Rikardo Arregi Kazetaritza lehiaketako saria irabazi zuen *Xabier Mendiguren Elizegi* beasaindarrak, Baloraziozko kazetaritza sailean.

29: *EPK-PCEn jaia* ospatu zen Oiangun. Julio Anguitak bertako mitinean parte hartu zuen.

29-30: *Ainhua Garmendia* ordiziar sopranoak Donostiak 'El Caserio' obran parte hartu zuen.

30: Espainiako Mountain Bike txapelketan bigarren egin zuen *Jokin Mujikak*.

BAREA
TABERNA

Festa onak pasat

Zaldizurreta Kalea ☎ 16 19 51
BEASAIN

ITZALA
taberna

Zaldizurreta, 3
☎ 88 30 24
BEASAIN

NAGASAKI
Taberna

Urte Berri on!

☎ 88 15 67

J. M. Iturrioz

BEASAIN

Uztaila

1: Gurdi berziklatuak aurkeztu zituen Ordiziako Eroskik. Arinagoak dira eta material berziklagarriarekin eginak dira.

5-11: Ordiziako Oroith abesbattza Italiako Goriztiako Nazioarteko abesbattza txapelketan hatu zuen parte. Tolosan egiten den txapelketaren maila berekoa da Italiakoa. Ez zuten

zorte handiegirik izan.

11: Aton programa aurkeztu zuen Goiekik. Europatik 351 milioi pezeta jasoko dira 1995-1997 urte biartean. Etorkizunean ekonomia munduan gerta daitezkeen aldaketei aurrea hartu nahi die. Zelatarri lanak eginez, aldaketak aurrikusi eta langileak prestatu, berziklatu.



27: Isidro Usabiagaren hilketaren aurkako manifestazioa egin zen.

13: Idiazabalgo Txome-naneko parkea inauguratu zen.

21: Ordiziako Guardia Zibilararen koartelari eraso egin zioten.

25: Aitor Garmendiak Ordiziako txirrindulari lasterketa irabazi zuen. Eguraldi txarra izan zen protagonista.

26: Isidro Usabiaga ordiziarra hil zuen ETak,

“salatari” izategatik.

26: Ordiziako jaiak bertan behera gelditu ziren, Isidro Usabiagaren hilketarengatik. Txoznak dena den, irekita egon ziren.

28: Isidro Usabiagaren aldeko hiletak egin ziren.

31: Ruben Zabaleta zegarmarrak munduko trial-sin txapelketa irabazi zuen Suizan. 10 urte ditu Rubenek.



15 Egun horretan hasi eta abuztuaren 31ra bitartean, Igartza jauregiaren bi fatxada nagusiak garbitu, txukundu eta berritzeko auzolandegia antolatu zuen Kutxak eta Beasaingo Udalak.

EZKURRA ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta
Tarima eta parketak



☎ 16 07 50 Domingo Unanue, 2
Faxa: 88 09 13 ORDIZIA



Nafarroa Etorbidea, 9

☎ 88 94 82

BEASAIN

OSKARBI OINETAKOAK



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.



K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44

ORDIZIA

ARRANO TABERNA

Pintxo eta ogitartekoak

Jaietan ere preso eta
iheslariak gogoan

Nagusia, 12
BEASAIN

Iraila

6: *Telefonicako autoa* erre zuten Ordizian.

8: *Gipuzkoako Ardizakur txapelketa* jokatu zen Mandubian.

8: Segurako udaletxean egin zen *Aizkorriko Partzuergoko uso-postuen enkantea* edo subasta. Dirurik gehien Apota-10a ordaindu zen, 855.100 pezetan. Pasaiako Inazio Lapazak erosi zuen.

9: *Beasaingo Ikastolak* atekak ireki zituen. Senperko merkatal gunean ditu ikasgelak.



11: *Ordiziako azoka berezia* egin zen. *Gazta lehiaketa* Idiazabalgo Domingo Goiburuk irabazi zuen. 555.000 pezetan saldu zen gazta erdia. *Ba-razkietan* Martuteneko

Jose M. Zabalegik irabazi zuen. *Fruituetan* Idiazabalgo Ramon Aseginolazak. *Behietan*, Limousin arrazakoetan, Urretxuko Jose Migel Elgarrestak; pirenaika arrazakoetan, Idiazabalgo Pedro Katarainek; eta friso arrazakoetan Lazkao Iztueta baserrikoek. *Eusko oiloetan* Francisco Quiros ordiziarak irabazi zuen; lepagorrietan Idiazabalgo Asier Alberdik. Elkarleen arteko *sukaldaritzako txapelketa* Ordiziako Larrun-Arri elkar-arteak irabazi zuen. *Odolki txapelketa* azkenik, Ordiziako Oianguren harategiko Jose Antonio Mujikak irabazi zuen.

11: Dolores Gonzalez Katarain '*Yoyes*' hil zutela hamar urte bete zirenean, omenaldia egin zitzaion hil zuten leku berberean. Konzentrazio ixila egin zuten, manifestua irakurri, Imanol Kantariaren '*Mendian gora*' abestia eta Xabier Euzkitzeren bertsoak kantatu ziren. Data haue-
tan, '*Yoyes 1986-1996*' liburua kaleratu zen. Bere egunerokoko pasarteak, duela 10 urteko omenaldian esandakoak eta azken 10 urte hauei buruzko gogoetak biltzen ditu liburuak.

14: *Ordiziako I. Akordeoi txapelketaren* finala jokatu zen. Xabier Tapia asteasuarra izan zen irabaz-
le. 5 lagun aurkeztu ziren lehiaketa honetara.

15: *V. Lazkao-Txiki bertsopaperen* sari-banaketan egin zen Barrena jauregian. Helduetan Rufino Iraola zaldibitarak irabazi zuen; gazteetan Leire Ostolaza azpeitiarrak; eta gaztetxoetan Ainara Zubeldia beasaindarrak. 25 lagunek hartu zuten parte eta 29 bertsolan aurkeztu ziren. Epaimahaia Iñaki Murua, Josean Ormazabal eta Nikolas Zeberio osatu zuten. Sari ematearekin batera, orain arteko edizioetan sarituak izan diren bertsoak biltzen dituen liburua ere aurkeztu zen.

15etik 22ra: Goierriko 25 lagunek *gose greba* egin zuten Erroman, euskal presoak Euskal Herriera ekar ditzaten eskatzeko. 22an ongi-etorria egin zitzaion Ordizian.

20-21: '*Bertsolari Gazteen II. Topaketa*' egin zen Segurako aterpetxean. Euskal Herri osotik etorritako 70 bertsolari gazte elkartu ziren bertan.

22: *Nekazaritza biologikoaren azokaren* bigarren edizioa ospatu zen Zerainen. Arrakastatsua izan zen eta 5.000 lagun inguru izan ziren bertan.

26: Juan Inazio Iztueta zaldibitararen '*Vocabulario de vascuence*' hiztegiaren aurkezpenean egin zuen Donostian Iztueta Fundazioak. Euskara-gaztelera hiztegia da. Adituek Iztueta unibertsal bezala izendatu dute, goierritarra izaki, bizkaiera eta lapurterako hitzak ere erabiltzen baititu.

27: *Gudari eguna* ospatu zuen KASek. "*Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokan hildako 15 goierritar gudari*" omen-
du zituzten Beasainen.

28: *Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsionisten ibilaldi neurtua* egin zen Beasainen. Gipuzkoa osoko 600 lagunek hartu zuten parte, 11 kilometroko ibilbidean.

30: Segura Irratian '*Kirol kantxa*' irratsaioa anteneratu zen. Igor Sarriegi eta David Beramendik Goierriko kirolaren berri ematen dute. Astelehene-
tik ostiralera, gaueko 10.00etatik aurrera.

ALDASORO

Taberna - Jatetxea

Urte Berri on!

Urdaneta, 27 ☎ 88 00 23 - 88 11 40

ORDIZIA

BESTE BAR

OGITARTEKO
PINTXO
KAXUELITAK

S. INAZIO 1 ☎ 160284 - BEASAIN

Urria

4: **GOIERRITARRA** aldizkariak bere 100. zenbakia kaleratu zuen. Ale bakoitzeko elkarrizketa, erreportaia... interesgarrienak biltzen saiatu zen.

5: *Mitxel Cuadrado* ordiziarrak 100 km. lasterketaldia egin zuen korrikan Santanderren. Bigarren euskalduna bera izan zen.



5: II. *Osinalde bola-lehiaketa* jokatu zen Gabiriako bolatokian. Antonio Alustiza zeraindarra izan zen irabazle. Guztira 58 bolarik hartu zuten parte.

8: *Goiekik* eta Markatal, Industria eta Nabegazio Ganbarak elkarlanerako konbenioa sinatu zuten.

8: Legorretako *Aulia sagardotegiak* irabazi zuen Gipuzkoako sagardo txapelketa. Beasaingo Murumendi elkartean jokatu zen.


11: Txalo antzerki taldeak *'Xagu tranpa'* antzez-lana estreinatu zuen Beasaingo Usurbe Antzokian, euskarazko eta gaztelerazko bertsoiak.

11: Kulturgaiak saltzen dituen *Baga-Biga* dendak ateak ireki zituen Ordizako Santa Maria kaleko 37. zenbakian.



12: *Baserriko oilaskoaren eguna* ospatu zen Zerrainen. Baserriko oilaskoa bultzatu nahi izan zen egun honekin. Jende ugari bildu zen, 500 oilasko erre saldu ziren. Juan Mari Arzak Eusko Labela duen baserriko oilaskoaren laguna izendatu zuten.

12: *Sabotaiak* izan ziren Zaldibiako Kutxan eta Idaizabalgo Kutxa eta Euskadiko Kutxako bulegoetan.



18: *Joxe Mari Lizarraga*, 11 urtez kartzelan egon ondoren, libre gelditu zen.


19: Egun horretan hasi eta abenduaren 21era bitartean, *Euskal Literatura jardunaldiak* antolatu zituen Kulturkideak.

20: III. *Ardiki eguna* ospatu zen Zaldibian. Aralar-ko artzainen gazta lehian izan zen, *Zeillio Goñi* amezketarra izan zen irabazlea. Mondeju lehiaketa, berriz, *Mari Kruz Aginaldek* irabazi zuen.

20: *Ileapaintzaileen lehiaketa* egin zen Ordizian. Ainhoa Irigoien izan zen irabazlea.

21etik 26ra: *Espainiako armadaren* brigada jauskariak edo parakaidistek maniobrak egin zituzten Goierriin. Helikopteroak istripua izan zuen,

Usurbeko gurutzea jota. Goierriko alkateak manio-bren aurka azaldu ziren.




21: 'Beasaingo Paperak: *CAF: fabrika haundie*' liburua aurkeztu zen Beasaingo Usurbe Antzokian. Elena Legorburu ordiziarren lana izan zen.

26: '*Euskal presoak Euskal Herrira*' jaialdi erreibindikatioa egin zen Seguran.

27: *Euskal Herriko Gazta txapelketa* jokatu zen Idiazabalen. Jesus Aranburu idiazabalarraren gazta izan epaimahai-kideen ustez onena. Hego Euskal Herriko lau probintzietatik 10na artzain etorri ziren. Hemendik aurrera ere, Euskal Herriko Gazta txapelketa Idiazabalen bertan egitea proposatu dute idiazabalдарrek.

28: *Herri aldizkarien etorkizuna* gai hartuta mahaingurua izan zen Beasainen, GOIERRITARRA aldizkariak antolatuta.



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran ZERAMIKAK

☎ 88 79 72
Senpere, 7
BEASAIN

Azaroa



1: 'Dantza berriak doinu berriei jarriak' dantza ikuskizuna aurkeztu zuten Beasaingo Aurtzaka eta Ordiziako Jakintza dantza taldeek. Arrakasta handia izan zuten.

1: Hirugarren mailako *Euskal Herriko aizkolari txapelketaren* kanporaketa jokatu zen Zaldibian. Asier Mujika, Iñaki Azurmendi, Iñaki Aierbe eta Mikel Jauregi 'Altzo' goierritarrak aritu ziren. Finalerako bi Iñaki sailkatu ziren.

3: Ataungo Hiru Auzoe-tako korrikaldia jokatu zen. Beasaingo Luis Migel Garijok irabazi zuen.

3: Diputazioko Herrilan zerbitzuetarako bi traktore-en aurkako *sabotaiak* izan ziren Zerainen.

9: Jesus Mari Irizar beasaindarrak irabazi zuen Beasaingo Odolki txapelketa.

10: Legorretako Udaletxean lehergailu batek ez-tanda egin zuen. Kalte material txikiak eragin zituen.

11: Ataungo San Martin elizako *organu eraberri-tua* inauguratu zuten. Bach musikaldiaren barruan, Esteban Elizondo organujolearen kontzertuak inauguratu zuten hain zuzen ere. Bi urte baino gehiago pasatu dituzte organoa konpontzen. Banan-bana askatu 1.500 tuboak. Begiratu, konpondu, garbitu eta afinatu zituzten. 1761koa da organoa, Lorenzo Arrazola oñatiarrak egindakoa. Organo klasikoa da.



16: Zegamako San Martin azoka ospatu zen.

16: Benito Lertxundik 'Hitaz Oroit' disko berria aurkeztu zuen Ordizian. Martin Irizar beasaindarraren omenez ateratako diskoa da berau.

16-23: 15 goierritarrek *gose greba* egin zuten Donostiako Artzai Ona katedralean, euskal presoak Euskal Herrira ekimenaren barruan. Kultur eta kirol munduko 40 goierritarrek ekimen honekiko atxekimendua azaldu zuten.

19: Juan Mari Insausti 'Karpov' beasaindarra atxilotu zuen Frantziako poliziak Paben. ETako aparatu logistikoko kidea izatea leporatzen dio poliziak.

24: Hirugarren mailako *Euskal Herriko aizkolari txapelketaren* finala jokatu zen. Iñaki Azurmendi arriarandarrak irabazi zuen. Datorren urtean bigarren mailan arituko da.

24: Gabiriako errezil sagarren lehiaketa izan zen. Herritarrek bakarrik harrezaketen parte bertan. Irabazlea Izar Aundiko Isabel Zumalakarregi izan zen.

25: Egun horretan hasi zen *Goiekin* Enpresa ekimen berriak eta autoenplegua sustatzeko programa.

26: Xabier Azurmendi Zegamako apaiz eta poeta hil zen.

16: Ordiziako *Liburu azoka* aurkeztu zen. Abenduaren 1era bitartean iraun zuen.

27: Koldo eta Arantxa Iparragirre beasaindar trikitilariak 'Murumendiko Mari' diskoa aurkeztu zuten Beasaingo Usurbe Antzokian.

30: 'Ostie!' aldizkariaren 4. zenbakiaren aurkezpena egin zen Ordiziako Baga-Biga kulturgai dendan. Goierriko (Goi Goierri eta Behe Goierri-Urola) 18 idazle berri eta ez hain berrien antologia argitaratu zen bertan, 12 orriko eranskinean. Goierriko idazleak hauek dira: Tere Irastortza, Jon Mikel Arano, Koldo Zubeldia, Mielanjel Unanua, Jon Imanol Iturriz, Pako Azanza, Mikel Imaz, Patxi Zubizarreta eta Xabier Mendiguren. Ohiko lekuetan dago salgai Ostie-la!.

30: Pedro Jose Iguain musikariari omenaldia eskaini zitzaion Beasainen. Musika munduan, lan ugari egindakoa da bera. Besteak beste, Loinatz abesbatzaren hastapenak bereak dira.



AZURMENDI

Harategi - Urdaitegia

San Inazio, 6 ☎ 16 16 74 - 16 13 28 BEASAIN
Victor Mendizabal, 2 ☎ 88 47 65 ORDIZIA

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN

Abendua

1: *Aitziber Esnaola* beasaindarra hil zen, Salbatorren gertatutako auto istripuan.

4: Goiekin *Forum 2005* martxan jarri zen. Etorkizunean garrantzitsuak izango diren gaiak aztertuko dira bertan. Hasteko, Amagoia Muruamendiaraz eta Inazio Mendigurenek Goierriko aiton-amonen egoera aztertzeke egin duten azterketa aurkeztu zuten.

4: Egun horretan hasi zen *Joxemiel Barandiaran*-Murkondo Kultur Elkarteak Joxemiel Barandiarani egingo dion omenaldia. Hainbat hitzaldi izan ondoren, abenduaren 31n lore eskaintza egingo zaio.

6: *San Nilolas* eskean ibili zen Zegama, Segura eta Beasainen.

6: *Ikaratzeko moduko zepoak* zakurra harrapatu zuen Gaztelun. Jexux Mari



20: Euskal artistek Goya pintoreari omenaldia eskaini nahi izan diote Zeraingo San Blas ermitan dagoen erakusketarekin. 20 artistek hartuko dute parte. Urtarrilaren 12ra bitartean iraungo du.

Larekiren zakurra zen. Zaldibitarak esan zigunez, pertsona bertan akabatzeko moduko zepoa zen. Asturiasen hartzak harrapatzeke erabiltzen zuten zepo omen da.

10etik 26ra: *Joseba Rezolari* omenaldia eskaini zion Goierriko EGIk. "Abertzalea, gudaria eta euskaldun sutsua" izan zen Rezola EGikoen esanetan. Leizaolarekin batera, Lehendakariordea izan zen.

14: *Aterpe Pintura lehiaketaren* sari banaketa egin zen. Angelika Villabak irabazi zuen.

14: 'Gure eskuetan' talde bakezalea aurkeztu zen Beasainen.

14-15: *Errioxako ardoren azoka* ospatu zen Ordizian. Araba Errioxako 16 bodegero izan ziren bertan.

17tik 20ra: *Beasaingo Alkartasuna Lizeoak*

Boliviako ikastetxe batera bidaltzeko oinarritzko materiala bildu zuen.

20: *Joxemiel Azurmendi eta Jokin Aldanondo* preso beasaindarrei omenaldia eskaini zitzaion Beasainen. Azurmendik 18 urte daramatza kartzelan eta Aldanondok 10.

21: *Beasaingo Ikastolak* Urbialde etxearen behekaldean izango duen egoitzaren lehen harria jarri zuen. San Tomas egun horretan bertan, Ikastolaren Eguna ospatu zuten ikasle eta gurasoek.

24: *Eguberrietako azoka berezia* ospatu zen Ordizian. Hainbat lehiaketa izan ziren bertan.

27: 'Moreno Rock' kontzertua izan zen Zaldibian. Potrotaino taldeko Morenok burmuin isuri edo derramea izan zuen. Eta bere errehabilitaziorako dirua lortzeko kontzertua izan zen.

SARRI

Taberna

URTE BERRI ON!



Etxezarreta K.

ORDIZIA

SUGAAR

TABERNA

"Urte Berria giro berria"

BOKATERIA

Elkano, 11
ORDIZIA

KiTTó

EDARITEGIA

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON GUZTIOI!

Iturralde, 1
BEASAIN

ORMAIZTEGI

Santa Lutziko odolki onenak herrikoak

Askotan aipatu izan da Ormaiztegiko harakinek egi-ten dituzten odolkiak kalitate maila onekoak direla. Oraingoan ere harakin horien lana saritua izan da, hain zuzen Santa Lutziko eguneko odolki lehiaketako bi lehenengo sariak herrira ekarri baitituzte.

Lehenengo saria Jesus Mari Debak lortu zuen. Berak adierazi bezala, Ezkio-

Itsason duten pabeloian egi-ten dituzten odolkiek estimazio izugarria dute eta egin ahala eskuetatik kentzen dizkiote. Gainera odolkiak egiteko lehengaiak beraien maila egokienean neguan daudenez gero oraintxe da beraiek dastatzeko aukera paregabea.

Bigarren saria ere Ormaiztegi aldera etorri zen, hain zuzen Iñaki Kanposek

eskuratu zuen. Bi harakin hauek faso dezatela herritar-ron zorionik beroena.

Urte Berri on!

1996. urtea amaitzeaz du- gu, eta 1997a atarian. Joan- go zaigun urteak gauza asko ekarri dizkigu, beste gauza asko baita aldatu ere. Hu- rrengo berriak ere oraindik ikusteko dauzkagu makina bat gauza ekarriko izkigula-

koan gaude. Ia gehienak behintzat onuragarriak di- ren.

Gu ere datorren urtean he- mentxe izango gara. Beraz, denon informazioarekin ea txokotxo bat osatzen dugun.

Beraz, zorionak eta Urte Berri oparoa opa dizuegu herritar guztioi.

Aitziber Murua

ZEGAMA

Gabon giroan

Abenduaren 29an, arratsaldeko 7etan, Orkatz abesbatzak eskainirik, aurt- en XII. Eguberri jaialdia eskainiko dute San Martin Elizan.

Ohi bezala Eguberri

abestiak dastatzeko aukera izango dugu zegamarrok.

Erregeen kabalgata

Musika Eskolak antolatu- rik, aurten Erregeen kabal- gata izango dugu, urtarri- laren 5ean, arratsaldeko

7.00etan. Hasiera Asegi- nolaza anaien etorbide- tik izango da, eta Elizalde ka- lean gora igoz San Martin elizan bukatuko da, 'Haurtxoari' zenbait es- kaintza eginez.

Urte Berri on!

Aurtengoak ere egin du. Zaharra ondo amaitu eta berria hobeto has dezazue- la opa dizuegu lerro haue- tatik. Urte Berri On!

Edurne Albizu

GOIERRITARRAK Kultur Elkarteko Batzar Orokorra

Gaia: Urteko kontu emateak

Aldizkaria kobratzen hasi ala ez

Lehenengo deialdia: urtarrilak 18, 11:00etan

Bigarren deialdia: urtarrilak 18, 11:30etan

Lekua: GOIERRITARRA-ren egoitza.

Lehendakaria: Dionisio Amundarain

Idazkaria: Andoni Sarriegi

GOIERRITARRA



88 96 12

MG
UAR

Argiztapenak
Akumuladoreak
Berrikuntzak orokorrean

Iluminazio denda
berria zabalik

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 88 86 88

☎ mugikorrak: 908-576580

eta 908-000831

ORDIZIA

EDARITEGIA

Ja

Urte Berri on!

Nafarroa Etorbidea, 27

☎ 88 86 81

KAFETEGIA

BEASAIN

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA

SEGURA

Elorri Kultur Elkartek, haur eta gazteen euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko, IV. Elorri Idazlan Lehiaketa antolatu du, hiru sailetan banatua: **A Saila:** DBHko 2. Zikloa, IEE, LH eta UBiko-entzat. 4 orrialde gutxienez eta 6 gehienez. **B Saila:** DBHko 1go ziklokoentzat. 2 orrialde gutxienez eta 4 gehienez. **D Saila:** Lehen hezkuntzako 3. ziklokoentzat. Orrialde bat gutxienez eta bi gehienez. Gaia librea izango da eta lanak urtarilaren 31rako aurkeztu beharko dira Elorri Kultur elkartera edo Elorripe tabernara. Lehiaketan, Laiotz Herri Eskolako ikasle den edo izan den edonork parte har dezake. Epaimahaikoek, Joxean Ormazabal idazleak, Garazi Goia zenbait literatur sari irabazitakoak eta Maria Jesus Ugalde Laiotz Herri Eskolako zuzendariak, martxoan jakinaraziko dute beren erabakia, sariak banatzeko iragarriko den ekitaldian. Partehartzaile guztiek izango dute sariren bat. Sariketaren baldintza orriak eskuratu ez dituenak, Elorripe tabernan eska ditzake.

Iaz III. Elorri Sariketara aurkeztutako 36 idazlanak, herriko eta eskualdeko zenbait firma komertzialei esker, argitaratuak daude eta dohainik banatuko dira etxe guttiertara.

Dantza ikastaroak

Elorri K.E.ak antolatu duen sueltoko dantzen ikastarorako epea zabalik dago. Izenak Elorripen dauden zerrendetan eman behar dira. Ikastaroak Baratze Pelotalekuan izango dira eta urtarilaren 2. astean hasita San Joanak arte iraungo dute. Aurtengoan irakasle berriak izango dira, Aiert Izagirre eta Eider Gar-

mendia. Dagoeneko, 2 talde zehaztuak daude. 9 urte artekoak ostegunero arituko dira, 16:45etatik 17:45etara. 10 urtetik 14ra artekoak, berriz, astearteetan, 16:45etatik 17:45etara. 14 urtetik gorakoak izango duten eguna eta ordutegia, izena emandakoen artean erabakiko da.

Anda eta kanta txapelketa

Abenduaren 22an egindako anda eta kanta txapelketan, 5 taldetan, 40ren bat neska-mutikok parte hartu zuten. Anda onenaren saria 5. mailako 10 urteko neska-muti-



San Joan subastara

Elizako pitzadurak aztertzeko, teilatuko obrak egiteko, sakristia berritzeko eta kanpai bueltako berria ordaintzeko, abenduaren lehenengo asterako espero zen Diputazioaren laguntza. Espezifikatu gabeko arrazoiengatik, ordea, dirulaguntza atzeratu egin da. Honek, bapateko zuloa suposatutako dio, momentu honetan Segurako elizaren ekonomiarik. Diru honekin, besteak beste, bankuek emandako maileguak estali behar ziren. Maileguak estaltzeko epeak pasata daudenez, ur-jentziatzeko erabakia hartu behar izan dute batzordeko-

koek eraman zuten. Bigarren DBHko 12 urtekoek eta hirugarren 4. mailako 9koek. Gabon kantetan ere, 5. mailakoak izan ziren lehenak. Bigarren 4. mailako 9 urtekoak geratu ziren eta hirugarren 3. mailako 8 urtekoak.

Urte zahar eguna

Abenduaren 31n, Segurako Kirol Elkarteko mendiko sailak antolatuta, goizeko 8:30etan plazatik irtenda eguerdirako bueltatzeko, urteroko igoera egingo da Aizkorriara. Iaz 30en bat lagun atera ziren eta goian, beranduago joandakoekin, gehiagoko elkartu ziren. Arratsaldeak. Berrito ere Udalarik zein herritarrei ezin zaienez aportaziorik eskatu, elizaren patrimonioa ikutzea besterik ez da gelditu. Hainbat bilera, kontsulta eta eztabaidaren ondoren, Aste Santuko San Joanen irudia subastatzea erabaki da. Pasa den astean, Arte Ederretako zenbait adituk tasatutako prezioan irtengo da enkantera. Oinarrizko dirutza hau, ez da subasta egunera arte jakitera emango. Subasta publikoa, zapa-tuan, abenduaren 28an, arratsaldeko 18:00etan hasita, Segurako Eliza Nagusian bertan egingo da, horretarako notaritzako profesionalak etorrira. Dagoeneko zenbait museok eta partikularrek azaldu omen dute beren interesa. Aipatu, San Joan Ebanjelaria, Salvador Carmonaren eskolari ego-tzia, Aste santuko irudietan zaharrenetakoa dela. Elizako Batzordekoek diotenez, honek ez luke Aste Santuko prozesioan inongo eraginik izango, santu bat gutxiagorekin ibiltzea besterik.

rako, oraindik zehaztu gabe zuten zerbaite antolatzekotan ziren neska-mutikoentzat.

Iluntzean, Elorrikoen iniziatibaz, Segurako talogileek plazan egingo dituzten talo pintxoak probatzeko aukera izango da.

Kabalgata

20ren bat urte kabalgatarik egin gabe pasa ondoren, Musika Eskolaren iniziatibaz, ohitura hura berpiztu nahi da. Orduko erara, ahal dela garai hartako jantziez baliatuz, 18:30ak aldera, Madalenan aldetik irtenda, herriari buelta emanez ibilbide bera egingo dute. Txanbolinpen Herodesek, bere bi jakintsuek eta soldadu erromatarrek egindako aurkezpenaren ondoren, Portikopean jarriko duten estalpera joango dira hiru erregeak eta laguntaldea. Zenbait gauza zehaztu gabe dituzte oraindik eta aurrerago egitaraua aterako dute.

Pelota

Iñaki Artola eta Ibon Etxeberria, Gipuzkoako Klubaren arteko txapelketan, senior mailan, txapeldunorde geratu ziren, abenduaren 21ean, Hernanin, Esnal-Zabala aňorgatzen aurka 22-11 galdu ondoren. Urtarrilean Euskadiko Klubaren arteko txapelketa hasiko dira jokatzeko Iñaki eta Ibon.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Infantilak: Aizkorri 0 - Urola 3. Kadeteak: Aizkorri 1 - Aldapetarrak 1. Jubenilak: Zarautz 0 - Segura 2. Erre-jionalak: Aretxabaleta 0 - Segura 1. Datozen bi asteburuetan ez da partidurik izango.

Joseba Telleria

LAZKAO

Kultur ekintza zabala Gabonetan

Udalak egun hauetarako antolatatu duen ekintza multzoak aurrera jarraitzen du. Orain arte burututako ekintzek oso erantzun ona izan dute, 24an eta 25ean egin-dako jaiotza bizidunak esaterako. Datorren larunbatean, abenduak 29, berriz, Alegiko Txintxarri abesbatza izango dugu entzungai San Migel Parrokian, 12:30etan.

Kultur eskaintza, ordea, ez da hemen amaitzen, urte berria ere indartsu baitartokigu. Urtarrilaren 3an, argazki lehiaketako irabazleei sariak banatuko zaizkie Udaletxeko Pleno Aretoan, 18:00etan. Bestetik, urtarrilaren 5ean, Errege egun bezperan, alegia, errege mezularia izango dugu ikusgai 12:30etan. Arratseko 6.00etan, berriz, errege kabalgata burutuko da herriko kaleetatik zehar.

Astotxo festa entzute-sua, urtarrilaren 12an egingo da. Zistertarren komentuan 11:00etan Meza Nagusia entzun eta gero, 13:00etan hasiko zaigu Egiptorako ihesaren aurkezpena Lazkao Txiki Zelaian. Honi guztiari arratsaldeko 5.00etatik aurrera kiroldegian jokatu diren pilota partiduak gehitu behar zaizkio.

Amaitzeko esan dezagun gutxi gora-behera orain bi aste hasitako pintura era-

kusketa zabalik dagoela larunbatean arte. Ondoren argazki erakusketari iritsiko zaio bere txanda; Udaletxeko Pleno Aretoan izango dugu erakusketa hau ikusteko aukera, abenduaren 30etik urtarrilaren 11 arte luzatuko dena. Ordutegia arratsaldean izango da, 18:00etatik 20:00ak arte, hain zuzen.

Tresna zaharren erakusketa

Antsoategi Elkartek antolatuta, Astotxo egunean eta bezperan hainbat tresna zahar ikusteko aukera izango dugu Udal Areto Nagusian. Ordutegia, honakoa izango da: larunbatean 18:00etatik 21:00ak arte; igandean 10:30etatik 14:30etara eta

16:30etatik 19:00ak arte.

Honetaz gain, aipatzekoa da larunbatean bertan, 16:30etatik aurrera, herri kirolak, Agautz trikitilari taldea eta talogileak izango direla plazan.

Moskorrak Mus txapelketa

Giro ezin hobean burutzen abenduaren 14an egin-dako mus txapelketa. Guztira 110 bikotek hartu zuen parte, asko eta asko kanpotik etorritakoak. Gerrikan jokatu zen finalean, finalistek partidua jokatu aurretik dirua banatzea erabaki zuten, 180.000 pezeta, hain zuzen. Azkenean Jabier Garmendia eta Martxel Sukia zaldibitarrak izan ziren garaile, Juakin Mari Aldanondo eta Jose Mari Mendiari irabazi ondoren.

Finalerdietara iritsitako bikoteek ere, dirua banatzea erabaki zuten, baina ez zuten ondoren partidurik jokatu. Eladio-Ona eta Triku-Antonio izan ziren dirua banatu zutenak. Gainerako lehen 8 postuetan honako hauek sailkatu ziren: Aitor eta Kepa 5.; Juan Carlos eta Patxi 6.; Eugenio eta Matias 7.; eta azkenik Murillo-Mann bikotea.

*Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu*

Txorizugarri lehiaketa, arrakastatsua



Halaxe da. Izan ere, antolatzaileek beraien ez zuten inondik inora uste hainbeste txorizugarri agertuko zitzaienik, 39 guztira.

Goierriko txoko guztietatik etorri da jendea. Partaide gehienak, noski, haurrak izan dira, 35 denera. Helduak 3 izan dira eta bakarra 60 urtetik gorakoen artean.

Lehiaketa 3 mailatan banatu da: 14 urte bitartekoen artean, San

Benito ikastolako 4.B taldekoak izan dira garaile; 15-60 urte dituzten artean, Maider Urretabizkaiak batetik, eta Anje, Texa eta Iñakik bestetik, jaso dute saria. Azkenik, 60 urtetik gorakoen artean, Dionisio Amundarainek egindako txorizugarria izan da saritua.

Lau sari hauez gain, ordea, izan da bosgarren bat, txorizugarri bakoitzak eraman beharreko euskarazko esaldirik itxurosoenari eman zaiona. Honetan ikastolako talde batek jaso du saria honako esaldiari esker: "uxatu txori trebeak, baina ez uxatu inguruan euskaraz ari diren umeak".

Epaimahaia Maite Mendizabal, Mila Aldasoro eta Aitor Asurmendik osatu dute.



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO

iPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

HIRIBARREN, 24
☎ 88 95 83

LAZKAO

BEASAIN

Euskararen erabilpena indartzeko hitzarmena sinatu dute Udalak eta Kutxak



Abenduaren 19an sinatu zuten Udalak eta Kutxak euskararen erabilpena indartzeko hitzarmena.

Udala euskararen erabilerara gehitzeko ahaleginetan ari da, baita Kutxa ere. Hori dela eta, Kutxak dituen bulegoak herritar askoren topagune direla jakinik, Udalak eta Kutxak hitzarmen honen bidez, orain arteko lankidetzaz indartu eta sakondu nahi dute, euskararen erabilpena zabaltzeko. Hitzarmenak dienez, bi erakundeetako *"langileek euskara erabiltzeko adierazi duten borondate eta konpromezu-mailak egin du bideragarri"* sinadura hau. Gauzak honela, euskararen zabalkuntza eta sendokuntza prozesuan protagonista izateko eta zuzenean eskuhartzeko ondorengo konpromezu hauek hitzartu dituzte:

1.- Elkarren arteko harremanak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, euskaraz izango dira.

2.- Erakunde sinatzaileok, euskara ahalik eta

gehien erabiltzen saiatuko dira beren funtzionamenduko esparru guztietan eta politiki-poliki, horretarako beharrezkoak diren baliabideak jarriko dituzte.

3.- Kutxa bere aldetik, Beasaingo bere bulegoetan bezeroekin dituen harremanetan euskararen presentzia ugaltzen ahaleginduko da.

4.- Kutxak Beasaingo bulegoetako euskararen presentzia (hormirudietan, iragarkietan, idazkietan, etab.) gehitzeko ahaleginak egingo ditu.

5.- Beasaingo Udala bere aldetik, hitzarmen honen edukia eta bere garapenaren berri herritarrei adierazteaz arduratuko da.

6.- Konpromezu hauek, hasteko, hiru urterako hartu dira eta urtero-urtero beren jarraipena egingo da.

Hitzarmena formalki sinatu ondoren, bi erakunde-en artean, dagoeneko izendatuta dauden pertsonen arteko harreman-mahaia eratuko da, atal desberdinetan euskararen erabilpena garatzen joateko eta garapen

hori bi erakunden arteko harremanetan gauzatzeaz gainera, herritarrengana ere luzatu nahi da eskaintzen diren zerbitzuen bitartez.

65 urte

Aurreko alean Juan Jose Lizarralde 75 urte dituela jarri genuen. Bada, 10 gutxiago ditu, 65.

Izaskun Salazar

Cochambako haurrekiko elkartasuna

Boliviako Cochambako bailaran, Itocta herrixkan, Laura Vicuña eskola dago. Eskola horrek dituen beharren aurrean, Alkartasuna Lizeoak elkartasun keinua bat egin nahi izan du.

Lurralde haietan egonak dira Josean Etxebeste eta Izar Gurrutxaga Lizeoko ikasle ohiek Beasain eta Lazkao udalei diru-laguntza eskatu zien beraiek Laura Vicuña eskola eraikitzeko, gaur egun eskola horretan 700 ikasle inguruk ikasten dute. Honen aurrean, Alkartasuna Lizeoak bere ikasleengan suspertu nahi den solidaritatea aurrera eramateko aukera ikusi du. Teorian lantzen duten gaia da elkartasuna, baina inoiz ez dute praktikan parte hartze zuzenik izan elkartasun ekintza batetan. Hori dela eta, ikastetxean bertan hasiera eman zitzaion Cochambarekiko laguntzari. Haurrak parte hartze zuzena izatea zenez, Laura Vicuña eskolan izan daitezkeen material faltak ahal den neurrian asetzea ziren helburuak. Lizeoko ikasleek material didaktikoa bildu dute Cochambara bidaltzeko. Hasieran material bilketa ikastetxean bertan egin bazen ere, zenbait gurasoren eskariz, bailara osora zabaldu da material bilketa eta oso harrera ona izan du.

Urtarrilean material didaktikoz betetako kontenedore bat fletatuko dute La Pazera (Bolivia). Fletaketa oso garestia denez, milioitik gorakoa. Hori dela eta, jasotako materialaren aukeraketa egin eta dirua biltzeko beste kanpaina bat egin nahi da.

Materiala bidaltzeko prozesua ez da erraza izaten, norbaitek lagundu behar du kontenedorea. Horrela ez balitz, La Pazera irixtean materiala galtzeko arriskua legoke. Karga bidaltzeko GKEN (Gobernuz kanpoko Erakunde-en) zirkuitua erabili nahi da, bide batez merkeagoa izan dadin.

Alkartasuna Lizeoak modu honetako kanpainak instituzionalizatu nahi ditu, modu honetako kanpainak aurrerantzean suspertzeko. Lizeotik Ipar-Hego kontzeptuari bultzada eman nahi zaio. Hegoarekiko erlazioen hutsunea bete dute. Ipar Amerikako ikastetxe pare batekin zuten harremana orain arte, orain Hego Amerikako beste batekin, Laura Vicuñarekin.

ORDIZIA

Intsumisiao soldadutzari

Etorkizun ez hain urrun batean soldadutzara joatea derrigorrezkoa izango ez den arren, oraindik milaka gazte dira "zigorra" jasan behar dutenak. Honen aurrean intsumisiao eta kontzientzi eragozpena dira gazteek azken urteotan jarraitutako bidea eta, aldiz, estatuarena kartzela eta inabilitazioak jartzea kasu horietan. Kode penal berriaren arabera, gainera, inabilitazioaren zigor hau gogortu egin da eta funtzionari gisa lanean diharduen gazte asko lanpostua galtzeko arriskutan geratzen da.

Aurrekoa ez da, ordea, Ordiziako kasua. Izan ere IUK aurreztutako intsumisiao soldadutzaari buruzko mozioa onartua izan zen aldeko 9 eta PP eta PSEren aurkako bi boturekin. Honen arabera, beraz, hemen-dik aurrera Udalak edozelango hauta-proba egiteko deia luzatzen duenean, inabilitazioa alde batera utziz, eragozpen-kontzientzi edo soldadutza intsumisio den ordiziar orori ez dizkio bideak itxiko. Era berean, udaletxean lanean dabilen bat egoera berebanean egongo balitz, kode penalak diotenari kasurik ez egitea erabaki zen plenuan. Laguntza publiko, dirulaguntza edo bekak eskuratzeko garaian ere udalak ez die inolako



San Tomas jaia Urdanetan

Gabonei ongi etorria emanez eta San Tomas jaiak ospatzeko, hainbat ekitaldi izan zen abenduaren 20an, Urdaneta ikastetxean. Txorizoa jan, Olentzeroren etorrera ospatu, Gabon kanta abestu, dantza taldearen ikuskizuna... denetik izan zen. Telebistaren zirkuitu itxiaren inaugurazioa ere egin zuten. Eta noski, jaiari amaiera ona emateko, Euskal Karaokean makina bat abesti kantatzeko aukera izan zuten gaztetxoek. Zuei ere, Urte Berri On!

eragozpenik
intsumisoei.

jarriko

igotzeko aukera hori izaten
jarraitzen duten behintzat.

Kirol balantzea

Urtea amaitzearekin batera herrian ditugun kirol talde desberdinen nondik norakoa begiratzeko garaia dela iruditzen zaigu. Honela goren mailako futbol taldea aipatu beharko genuke lehenbizi, denboraldi hasiera kaskarra izan arren lehen postuetan murgilduta baitabil azken ihardunaldietan. Errejonan mailan dauden taldeen parekotasuna nabaria denez ea 3. mailara

lagoko taldeetara bidali asmoz, egiten ari diren lana onartzeko modukoa da.

Hamarkada hasieran emaitza oso onak lortu ondoren, lehen mailako goi postuetan ibili ondoren, sailkapenean erdialde inguruan egotera ohitu dira rugby jokalariai. Aurre-denboraldi erabat kaskarra egin ondoren ligan zertxobait hobeto dabilta. Dena den irregulartasuna da nagusi ordiziarren artean, aste batean garaipena eta hurrengoan porrota lortuz. Trebijano zelai berrian lortzen dituzte emaitzik onenak eta aipatu, zelaia modu onean erantzuten ari dela eguraldi txarraren aurrean. Hala ere, teknikariek esan dutenez, zelaia ordu gehiegiz erabiltzen ari dira eta hau zelaiak nabaritutako du, batez ere kapa txikia dagoen alderdietan.

Atletismoa, pelota... ere hor daude eta esan atletismoan adibidez ikastetxeen arteko probak lehian dauden honetan, maila handia erakusten ari direla gaztetxoak. Batez ere nabarmentzekoa da Jakintzako neska-mutilak egiten ari diren lana.

Aitor Calvillo

ARANTXA

MERTZERIA - LENTZERIA

Gabon Zoriontsuak!

J. M. Barandiaran, 3 ☎ 88 76 15
ORDIZIA

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

*Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak*

Iturtxo, 5 ☎ 16 22 56 **ORDIZIA**



AXOLA

JANTZIDENDA

GIZON - EMAKUME - GAZTE MODA

J. M. Barandiaran, 1 ☎ 16 15 65
ORDIZIA

IDIAZABAL

Gabonetan bada zer eginik

Gabonetako oporrak dirako hainbat ekitaldi antolatu ditu Kultura-batzordeak. Hilaren 24an hasita urtarrilaren 2ra arte antolatutako batzuk hauek dituzue:

Abenduaren 27an, ostirala, Txalo antzerki taldeak Agatha Christiren 'Xagu apia' lana eskainiko du gaueko 10.00etan pilotalekuan. Ramon Bareak zuzendutako antzezlan honek Ane Gabarain, Ramon Agirre, Xabier Agirre, Jone Irazabal, Maribi Arrieta eta Ramon Ibarra aktoreen lana ikusteko aukera izango da. 'Xagu apia' lanak hilketa baten gora-beherak ditu ardatz. Ikusleek gainera obra-aren atsedenealdian hiltzailea nor den asmatzeko aukera izango dute. Asmatzaileen artean hiru hilabete behin bidaia bat zozketatzen dute



Olentzero herriko plazan azaldu zen Gabon gauean. Gazte Asanbladakoak urtero bezala baserri-zaberriz-baserri kantuan ari zirela Olentzerorekin topo egin zuten. Hura traktorean hartuta plazan azaldu ziren, bertan herriko abesbatza eta txistulariak eskaintzen ari ziren kontzertua eten eta Olentzerok hitz batzuk egin zituen, ondoren guztiak batera kantatu zioten ikazkin zaharrari.

Txalo taldekoek.

Urtarrilaren 2an, osteguna, Arrate Leunda ipuin

kontalariak gaztetxoentzat ipuinak kontatuko ditu Kultur Etxean, arratsaldeko 5.00etatik aurrera.

Urte Berri eguna

Aspaldiko ohiturari eutsi, Udalak ardo partiketa egingo du Urte Berri egunean. Urteko lehen egun horretako zita iluntze aldean izaten da Udaletxeko arkupean.

Kabalgata

Olentzerok bixita egin zigun, orain erregeen zain geratu beharko dugu. Errege egunaren bezperan iritsiko dira herrira Meltxor, Gaspar eta Baltasar. Kinbela astialdiko taldea eta katekistak ari dira erregeen etorrera prestatzen. Iluntzean azalduko dira herrian eta ohiko buelta egin ondoren, plaza-jaongo dira opariak banatzera.

Xabier Urteaga

ATAUN

Jose Ramon Agirrek argazki lehiaketa irabazi

'Errota' izeneko argazkiarekin irabazi du Jose Ramon Agirrek argazki lehiaketa. Agirrek 60.000 pezetako saria jasoko du. Bigarrena Andoni Aizpurua izan da, 'Jentilen Etorrera' argazkiarekin. Honek 25.000 pezeta jasoko ditu. Hirugarren saria Antton Etcheberriarentzat izan da, 'San Martin' izeneko argazkiarengatik. 15.000 pezeta jasoko ditu saritzat.

Epaimahaikide hauek hartu zuten erabakia: Joxe Mari Telleriak, Santi Iruretagoienak, Juan B. Etcheberriak, Oihana Munduatek eta Santi Etcheberriak.

Lehiaketa honen helburuak zioen bezala, postalak egingo dira lan hauek. Sari banaketa abenduaren 28an egingo da. Lan guztiak erakusketa, berriz, urteko azken egunerarte izango da ikusgai.

Joxemieli omenaldia

5. urtez jarraian, omenaldia eskainiko zaio aurten ere On Joxemieli Barandiarani. Eguerdiko 12.00etan lore eskaintza egingo zaio, San Gregorioko hilerrian.

Bestetik, oraindik ere ikusgai dago Udaletxean, 'Ekilore, gure arbasoen ondare mitikoa' erakusketa.

Josune Aldabe

Orain arteko kronistak, Jon Aizpurua, denbora falta duela eta agur esan digu. Bere orde, hemendik aurrera, Josune Aldabe arituko da. Beraz, informazioen bat izanez gero, berarekin jarri harremanetan (telefonoa: 180017). Eskerrik asko Jon, eta ongi-etorri Josune.

GOIERRIKO ZURAK

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e. a.

Hiribarren, z/g

☎ 88 80 23

LAZKAO

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN



1946ko Ordizia futbol taldea

Jose Estalak ekarri digu argazkia. Aranako futbol zelaian, 1946an, Ordiziako Futbol taldeari ateratakoa da. Hamaikakoa hauxe:

Zutik, ezkerretik eskubira: Eduardo Las Heras, Juan Mari Jauregi, Pedro Korta, Jesus Mari Aranburu, Asensio Sarasola eta Juan Mari Lasa.

Makurtuta: Jose Estala, Jaime Iruretagoiena 'Txitxin III', Migel Irastorza, Pedro Aizpurua eta Juanito Erauskin.

ITOITZ

k a f e t e g i a

ogitartekoak

garagardo bereziak

kafe bikainak

© 16 18 08
Goierrri Kalea
ORDIZIA



Foto IBILTARIA

GEMA M. ARRUGAETA
Argazkilari profesionala

DAVID MONTERO ARRUGAETA
Bideo eta T.B.-n expezialdutako teknikaria

- ✕ Argazki eta bideo erreportaiak
- ✕ Laborategi zerbitzu orokorrak

Elkano, 8

Tfnoa. eta faxa: 16 22 64

ORDIZIA


Argitarapen honen edizioak segurtasunaz.

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

97an KIROLA ANTZIZAR KIROLDEGIAN



BEASAINGO UDALA

KIROLA EN UDAL ERAKUNDEA

ANTZIZAR UDAL-KIROLDEGIA

